

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA/UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

TXILEKO 2019KO EZTANDA SOZIALA ETA GIZA ESKUBIDEEI
BURUZKO IBILBIDEA

*«Pribilegioek naturalizat jotzen duten indarkeriaren aurrean indarkeriazko
erreakzioa».*

Gioconda Belli

Egilea: AIZENE LEMOS BASCONES

Gradu Amaierako Lana

Zuzenbide Gradua

Zuzendaria: Iker Nabaskues Martínez de Eulate

2021ko maiatza

I. SARRERA	2
II. ZUZENBIDEA ETA ESTATUA	5
1. Estatua eta bere indar legitimoa	5
2. Zuzenbidea gizarte fenomeno bezala	9
3. Zuzenbidea estatuaren botere negatibo bezala	10
III. TXILEKO AURREKARIAK	15
1. 1980ko Txileko Konstituzio Politikoaren garapen historikoa	15
2. 2019ko urriaren 18ko eztanda soziala	19
3. Konstituzio berriaren proiektua	21
a. Konstituzio berri baten aldeko lehen urratsak	23
b. 1980ko Konstituzioaren mugak	26
IV. GIZA ESKUBIDEAK EGUN, TXILEN	27
1. Giza Eskubideak eta txiletarren aldarrikapenak 2019ko ezندان	28
2. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoaren txostena	34
V. ONDORIOAK	36
VI. BIBLIOGRAFIA	41

I. SARRERA

2019. urtean, Hego Amerikako hainbat herrialde krisi sozialetan murgildu ziren, eta krisi horiek amorrua, protestak eta indarkeria eragin zituzten. 2019ko amaieran Txilen bizi izan zen eta denboran irauten duen kaosaren geografia azaltzeari ekingo diogu alderdi filosofiko-juridikotik, eta, gainera, gertaerak modu kritikoa subjektibizatzen saiatuko gara.

2019ko uztailean Latinoamerika bisitatu nuen lehen aldiz. Putzua zeharkatzen nuen esperientzia bakar eta ezberdin baten bila, besteak beste. Unibertsitate-trukeak bost hilabete iraungo zuen, eta ez nuen espero ikasketa gehigarri hori izango nuenik, hau da, herrialde oso batek protesta egitera kalera nola irtetea erabakitzen duen, interes ekonomikoengatik kendu zitzaizkiela uste zuten giza eskubideak eskatzeko. Gainera, ikusi ahal izan nuen edo benetan jabetu nintzen Zuzenbidearen garrantziaz, hots, herritar guztien eskubideak eta askatasunak defendatzen dituen Zuzenbidea beharrezkoa zela.

Oraindik ez nengoen ohituta txanpon-aldaketara, baina aste gutxiren ostean nabaritu ahal izan nuen nire bizi-maila, gastu ekonomikoari dagokionez, Europako zenbait eskualdetan zegoen ikasle baten antzekoa zela (batzuetan handiagoa). Txile, herrialde gisa, itxuraz bere aberastasun ekonomikoari dagokionez Hego Amerikako gainerako herrialdeekin alderatuta garatuta zegoela banekien, eta kontzeptu hori egonkortasunarekin lotu ohi da, baina askotan okerra da baieztapena. Geroago, herrialdea, bere lurak, bere lur nazionalako baliabideak saldu eta pribatizatu egiten zirela jakin nuen. Estatuaren aurrean herritarren bermeak betetzen ez zituzten enpresa pribatuen eskuetan geratzen ziren.

Txilera iritsi eta hiru hilabetera, neure burua etxeratze-aginduen, greben, manifestazio masiboen, liskarren eta istiluen artean murgilduta ikusi nuen. 2019ko urriaren 18an Txile larrialdi egoera batean sartu zen. Azken hiru hamarkadetako (diktadura amaitu zenetik) gizarte-eztandarik garrantzitsuena izan zen. Ostiralean, urriaren 18an, hasi ziren martxak, hasiera batean metroaren tarifek gora egin zutelako. Herri hortako iturri

ezberdinen arabera, manifestazioetan 36 hildako eta 11.000 zauritu baino gehiago izan ziren.

Jendeak ez zela beldur, nahiago zuten tiro batez hil gosez hil baino oihkutzen zuen. Kanean gobernuari ez zaizkiola axola gizartearen arazoak, bere rola merkatu askea bermatzean mugatzen dela ulertzen zen. Hezkuntza jasotzeko dirurik ez baduzu, zure soldatak osasun duina izateko balio ez badu, metroaren txartela ordaintzeko aurrezkiak iristen ez bazaizkizu... zure arazoa da. Txiletarrak, herritar gisa, oso zerbitzu gutxi dituela bere zergen kontura jabetu nintzen. Milaka eta milaka pertsona zeuden Konstituzio berri baten alde, eta orain martxan dagoen proiektu konstituzionagilea herritik sortu zen. Augusto Pinocheten diktaduran sortutako Konstituzio politikoa alde batera utzi nahi duen herri baten aurrean gaude.

Txilen, nire egonaldian, egon ziren giza eskubideen urraketak azaltzea eta etorkizunean etorriko den Konstituzio berriaren azterketa da lan honen helburua.

Lan honen marko teorikoa, Zuzenbidearen Teorian garatzen diren zenbait gai ezberdinak dira: Zuzenbidea eta Estatuak, eta Giza Eskubideak. Lan honen marko metodologikoa, harreman hori metodo deduktiboen eta azalpen-metodoen bidez aztertzea litzateke. Hasteko, metodo deduktiboa erabiltzea aproposa da orokorretik (legeak edo printzipioak) partikularrean (fenomeno edo gertaera zehatzak) doan pentsamendu-prozesua baita. Bestetik, azalpen metodoa erabilgarria da, kausazko erlazioa aztertzen duen azterketa-mota baita, hau da, ez du soilik deskribatzen edo ikertzen ari den arazora hurbiltzen, baizik eta haren kausak aurkitzen dituela frogatzen du.

Boterearen, indarraren, zuzenbidearen eta giza eskubideen papera sentitu izan dut Txilen. Horrelako mugimendu sozial-historiko bat bizitzearen azpian dauden ezjakinei erantzunak aurkitzea da nire xedea. Emozioak alde batera utzita, baina inoiz ahaztu gabe, garrantzitsua iruditzen zait Estatuak agintari bakar gisa, enpresa handien zerbitzura dagoena, monopolizatzen duen indarra kontutan hartzea. Zuzenbidea gizartetik sortu dela ahaztu gabe, nahiz eta gizarteak hertsatzeko tresna izan.

Garrantzitsua da estatuaren funtzioaz erreparatzea, hiritarrek erabiltzen den indar fisiko eta psikikoaren indar monopolizatzaile gisa, eta horren ondorio zuzena askatasuna edo askatasunik eza izanda. Era berean, Zuzenbidea gizartetik sortzen da eta elkarrekin eboluzionatzen duten elementuak direla ulertu behar dugu. Ez dugu ahaztu behar Zuzenbidea hertsapen-tresna gisa erabiltzen dela, eta zigorrak ezartzen dizkietela herritarrei, zuzenbidea errespetatu dezaten; beraz, ondoriozta dezakegu Zuzenbidea Estatuaren botere negatiboaren parte dela.

Esparru teoriko-metodologikoa, zein den aipatu ondoren, beharrezkoa da, Txileko historiaren aurrekari desberdinei erreparatzea oraina ulertzeko. Alde batetik, Txileko 1980ko Konstituzio Politikoa, diktadura-erregimen batean sortua, eta haren ondorengo erreformak. Konstituzioa indarrean jarraitzen du, baina ez luzaroan, 2019ko urriaren 18ko eztanda sozialaz geroztik prozesu eratzailerik bat gauzatzen ari baita.

Alde batetik, 1980ko Txileko Errepublikako Konstituzio Politikoa aztertzen dugu. Konstituzio hau Augusto Pinochet-en erregimen diktatorialean sortu zen eta horregatik gutun magna honen zilegitasuna zalantzan jar daiteke. Urriaren 18ko eztanda sozialaren ondorioz, Konstituzio berri bat sortzeko ideia, 2013an indarra zeukana, berpiztu zen eta gaur egun aurrera doan proiektu konstituzionagilearen azterketa egingo dugu, hala nola, Konstituzio berri bat egiteko egin behar den ibilbidea.

Giza eskubideek leku garrantzitsua dute lan honetan; horregatik, alde batetik, 1980ko Txileko Konstituzio Politikoa islatzen diren eskubideak aztertzen ditugu, zehazki Konstituzioaren 3. kapituluaren aurkitzen ditugun eskubide eta askatasunak. Modu berean, 2019ko eztanda sozialean giza eskubideak urratu ziren eta hauek ikertu egingo ditugu. Behin 1980ko Konstituzioak herritarrei aitortzen dizkien eskubide eta askatasunak, eta 2019ko urriko eztanda sozialaren ondorioz urratu ziren eskubide eta askatasunak aztertuta, Konstituzio berriarekin lortu nahi diren eskubideak azaltzen ditut. Halaber, Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak urriaren 30etik azaroaren 22ra arte urratutako oinarrizko eskubideei buruzko txostena argitaratu zuen 2019ko abenduan aztertzen dut, bertan azaltzen dira eztanda sozialan urratutako eskubideak eta berriro ez gertatzeko helburuarekin Gobernuari gomendioak ematen zaizkio.

Lanari amaiera emateko, ondorio batzuk ateratzen ditut erabili ditudan iturri ezberdinen ikerketatik. Alderdi subjektibo batetik, gehienbat, baina baita objektiboki ere, azken urteotan Txilen eskubideek eta askatasunek izan duten garrantzia azpimarragarria baita, baita herrialdeak bizi duen prozesu konstituziogilearen garrantzia ere, Txileko herritarrei eskatzen duten hori emateko aukera ahalbidetzen baitu.

II. ZUZENBIDEA ETA ESTATUA

1. Estatua eta bere indar legitimoa

Estatua antolaketa soziala, politikoa eta juridikoa da. Geografia mugatu baten barruan gobernatzeko eta funtzio politiko, sozial eta ekonomikoak betetzeko botere subiranoa duen erakundea da. Doktrina politiko klasikoaren arabera, Estatua osatzen duten elementuak biztanleria, lurraldea eta boterea dira. Estatuak biztanleria osoa, lurraldea, hura antolatzen eta gobernatzen duten intituzio publikoak eta bere kultura hartzen ditu bere baitan. Era berean, ikus daiteke gizarte politiko eta juridikoki antolatua dela, barnean autoritateak eta subiranotasuna balia ditzakeena eta internazionalki biztanleak erantzukizunez ordezkari dezakeena.

Max Weberrek Estatua hertsapen legitimo eta espezifikoko gisa definitzen du. Weberrek uste du Estatua dela indarkeriaren monopolioa mantentzen duen "*ultima ratio*" gisa legitimatutako indar gordina.¹ Bestalde, Karl Marxek Estatua dominazioaren erresuma bezala ulertzen du.² Marxek honela definitzen du Estatua: "*Estatua ez da arrazoimenaren erresuma, indarraren erresuma baizik; ez da guztion ongiaren erresuma, interes partzialarena baizik; ez du helburu guztien ongizatea, boterea daukatena baizik; ez da naturazko egoeratik irtetea, beste forma baten pean jarraitzea baizik.*"³

¹WEBER, Max. *La política como vocación*. RUBIO LLORENTE, Arturo (itzultzailea). México: Folios Ediciones, 1982. (Originala Alemana: *Politik als Beruf*, 1919 - 2. orr)

²BOBBIO, Norberto. *Teoría general de la política*. Madrid: Trotta, 2005.

³WEBER, Max. *La política como vocación*. RUBIO LLORENTE, Arturo (itzultzailea). México: Folios Ediciones, 1982. (Originala Alemana: *Politik als Beruf*, 1919, 83-84. orr)

Bob Jessop⁴ idazle britaniarrarentzat, Estatuaren aparatua muina erakunde eta antolakundeen multzo bereizgarri gisa defini daiteke, eta haien funtzioa, sozialki onartua, honako hau da: kolektiboki lotesleak diren erabakiak definitzea eta betearaztea "interes komunaren" edo "borondate orokorraren" izenean emandako populazio batean.⁵ Estatu lurralde zehatz batean antolaturiko erkidegoa da, botere juridiko, autonomo eta zentralizatuan antolaturiko funtzionario-kidegoak zerbitzatutako ordena juridiko baten bidez zehaztua. Estatu batean beti dago bertan bizi den pertsona-multzo bat. Herritarrek zenbait eskubide dituzte, betebeharrak eta erantzukizun batzuk izateaz gain.

Espazio fisiko (lurralde) zehatz bat existitu behar da non estatu bateko biztanleria kokatzen den. Espazio fisiko horrek bere mugak argi eta garbi mugatuta ditu, inguruko estatuarekin gatazkak saihesteko. Estatu botere publiko subiranoaren eta bere eranskin materialen (armada, kartzelak, polizia, intituzio hertsatzaileak, etab.) jabe den erakunde politiko unibertsala da. Banaketa du ezaugarri, administrazio- eta lurralde-banaketa, zergen eta zuzenbidearen arabera.

Hiru elementu aurkitzen ditugu Estatuaren doktrina klasiko politikoaren arabera:

1. Boterea. Ikuspegi marxista batetik, klase menderatzailearen borondatearen adierazpidea da, Estatuaren borondatearen bidez adierazia.
2. Lurraldea. Estatuaren elementu fisikoa, bere existentziaren elementu hautemangarria da. Ezin da estatu bat ulertu lurralde jakin baten existentziarik gabe.
3. Biztanleria. Estatuaren giza elementua. Estatu baten lurraldean bizi diren gizaki guztiak dira.

Laugarren elementu bat aipatu behar dugu, subiranotasuna. Subiranotasuna estatu baten ahala da, bere barneko eta kanpoko arazoak askatasunez erabakitzeko eskubidearen bidez adierazia, beste estatuaren eskubideak eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren printzipioak eta xedapenak urratu gabe. Jean Bodin, abokatua, filosofoa, politikaria,

⁴Bob Jessop, akademiko eta idazle britainiarra da. Estatuaren teoriari eta ekonomia politikoan aditua. Lancasterreko Unibertsitateko soziologia irakaslea da.

⁵JESSOP, Bob. *State Theory. Putting the Capitalist State in its Place*. Cambridge: Polity, 1990 - 341.orr.

historialaria, ekonomialaria eta elizgizon frantsesak subiranotasunaren ideia garatu zuen.⁶

Weberrek Estatuari buruz ematen duen definiziora itzuliz, honek honako hau dio: *“Estatua lurralde jakin baten barruan (“lurraldea” elementu bereizgarria da), bere buruarentzat (arrakastaz) indarkeria fisiko legitimoaren monopolioa eskatzen duen giza komunitatea da. Gure garaiko berezitasuna da gainerako elkarte eta gizabanako guztiei indarkeria fisikorako eskubidea Estatuak baimentzen duen neurrian bakarrik ematen zaiela. Estatua da indarkeriarako “eskubidearen” iturri bakarra.”*⁷

Indar publikoa legez monopolizatzeko teoriak dio Estatuak bakarrik izan dezakeela ahalmen hori, suposatzen baita gizarte baten autoritate gorena dela eta, beraz, biztanle guztiek errespetatu behar dutela. Hala ere, indarkeria ez da, noski, Estatua baliatzeko bitarteko arrunta, ezta bitarteko bakarra ere, baina bai bere bitarteko espezifikoa.

Estatua, historikoki aurretik izan diren elkarte edo entitate politiko guztiak bezala, gizonek gizonen gainean duten nagusitasun-harremana da, eta bidezko indarkeriaren bidez eusten zaio. Irauteko, beraz, menperatuek une horretan nagusi direnak izan nahi duten autoritatea bete behar dute.

Hiru menderatze legitimo huts aurkitzen ditugu legitimitatearen oinarritzko oinarrien edo funts nagusien arabera:

1. Izaera arrazionalako menderatze legitimoa. Ordenamendu estatuatuen legezkotasunean oinarritzen dena, eta agindu horiek aginpidea baliatzeko deitutakoen aginte-eskubideetan ere, hau da, legetan, estatutuetan, konstituzioan eta haiek aginpidea emateko izendatutakoetan oinarritzen dena.⁸
2. Tradiziozko izaera duen nagusitasun legitimoa. *“Aspaldiko garaietatik indarrean egon ziren tradizioen santutasunean eta tradizio horrek aginpidea erabiltzeko adierazitako tradizioen legitimitatean sinestea”* oinarri duena.⁹

⁶BODIN, Jean. Abokatu, filosofo, politikari, historialari, ekonomialari eta elizgizon frantsesa izan zen. Bere obra garrantzitsuak: *Methodus ad facilem historiarum cognitionem*; *Les six livres de la République*; *Universae naturae theatrum*.

⁷WEBER, Max. 2002, 170. or.

⁸Weber, 2002, 172. or.

⁹Weber, 2002, 172. or.

3. Izaera karismatikoko dominazio legitimoa. *"Pertsona baten santutasunera, heroismora edo eredugarritasunera eta hark sortu edo errebelatutako antolamenduetara (deia) estrakotidianoz (autoritate karismatikoa)"* oinarritzen dena, hau da, agindu behar duen pertsonarengan, buruzagiarengan, zuzenean sinesten da.¹⁰

Estatuak indar fisikoa erabiltzeaz gain, indar sinbolikoa erabiltzen du biztanleria menderatzeko. Estatua sostengatzen duten gizabanakoek boterea betikotzeko helburuarekin. Gutxi batzuek osatzen duten boterea, gutxi batzuen mesederako. Horrela kritikatzeko Jule Goikoetxea akademikoak boterea ikuspegi marxista batetik: *"Janaria egonda, gosez hiltzea. Tratamendua duen gaixotasunaren ondorioz hiltzea. Baliabideak egonda, baliabiderik ez edukitzea. Ordezkaritza egonik, ordezkatuta ez egotea. Ahoa eduki eta ahotsik ez izatea."*¹¹

"Indarkeria sinbolikoa" terminoa, Pierre Bourdieu¹² soziologo frantsesak erabili zuen itxaropen kolektiboetan oinarrituta hautematen ez diren sumisioak abiarazten dituen indarkeria definitzeko. Biolentzia sinbolikoak bere oinarria talde sozialen hierarkizazioari loturik dagoen sailkapen-eskemen legitimazioan aurkitzen da.¹³

Indarkeria erabiltzeko legitimitatea gutxi batzuek baino ez dute. Eta, Jule Goikoetxea akademikoaren arabera, sinestarazi digute indarkeriarekin gizabanakoek ez dutela ezer lortzen, *"Eta biolentziak inora eramaten ez duenez, hemen jarraitzen dugu zuzenbide kanonikoarekin, 16 orduko lanegunekin, bozkatu ezinik eta analfabeto. Horregatik gara guztiok naziak eta politeistak."*¹⁴. Historian zehar, gizabanakoek indarkeria erabili dutenean aldaketak eragin dituzte. Baina hobe da herritarrei sinestaraztea indarkeriak ez duela ezertarako balio. Indarkeria sinbolikoa erabiltzea Estatuan bizi diren gizabanakoak aske senti daitezen, nahiz eta aske ez izan. Gorputzaren gaineko

¹⁰Weber, 2002, 172. or.

¹¹GOIKOETXEA, Jule. "Biolentzia". Berria aldizkaria, 2020. <https://www.berria.eus/paperekoa/1876/020/001/2020-06-04/biolentzia.htm>

¹² BOURDIEU, Pierre (Frantzia 1930-2002). Soziologoa izan zen. Frantziako egungo pentsalari ospetsu eta polemikoenetakoa izateaz gain, antiglobalizazio eta altermundialismo mugimenduen inspiratzaile intelektualetako bat ere izan zen.

¹³BOURDIEU, Pierre; WACQUANT, Loïc J.D.. *Réponses. Pour une anthropologie reflexive*, Seuil: Paris, 1992.

¹⁴GOIKOETXEA, Jule. "Biolentzia". Berria aldizkari, 2020. <https://www.berria.eus/paperekoa/1876/020/001/2020-06-04/biolentzia.htm>

doktrinamendu sinboliko eta fisikoak disuasio-tresna gisa funtzionatuko du, menpekoek subiranoaren nahiei men egin diezaieten, hauek dominazioaz jabetu gabe.¹⁵

Estatu demokratiko eta zuzenbidezko estatu bateko herritarrek hautestontzietan “askatasunez” hautatzeko aukera dute, Txileko 1980ko Konstituzio Politikoaren 15. artikulua edo 1978ko Espainiako Konstituzioaren 23. artikulua adierazten duten bezala. Baina, aipatutako indarkeriak jasaten duten gizabanok libreak dira? *“Askatasunaz hitz egitea oso gauza handia da, kontzientzia aske izatea onartzea da, eta hori ez da kontzientzia-askatasuna. Kontzientzia askea izateak esan nahi du nik erabaki dezakedala elementu guztiak ditudanean nire erabakia formulatzeko. Ondo informatuta nago, ondo prestatuta nago, egunero jaten dut, sabai bat dut gordetzeko, arropa bat dut janzteko. Eta behin nire premiarik oinarrizkoenak asetuta, gizon libre bat izateko pentsatzen has naiteke. Izan ere, lana nola edo hala moldatzen bilatu behar badut, langabeziaren ilaran jarri behar banaiz, eta oso diru gutxi-engatik salduko naiz, nireak eta ni jan behar dugulako... Ni ez naiz gizon librea, nahiz eta bihar bozkatzeko baimena eman. Nire goseak eta lanerako saldu beharrak mugitzen naute.”*¹⁶

Askatasuna Julio Anguita, Izquierda Unidako liderrak esaten zuen moduan ulertuz gero, biztanleak libreak direla esatea gehiegizkoa da eta gizabanako librez osatuta ez dagoen Estatu bat legitimatuta egon daiteke? Mekanismo juridikoak herritarren askatasuna murrizten duten boterearen indarkeriazko jardunbideak bermatzen dute, baina Zuzenbidea ez da nahitaez legitimitate-tresna gisa eratzen, baizik eta talde bat gizartearen gainerakoarekiko hertsatzeko eta menderatzeko modu gisa.

2. Zuzenbidea gizarte fenomeno bezala

Zuzenbidea fenomeno soziala da. Zuzenbidea existitzen da gizarte bat aurkitzen dugun tokian. Horren adibide dira gizartean bizitze hutsagatik gure eguneroko bizitzan gauzatzen ditugun ekintza juridikoak: egunkaria erostea (merkataritza- eta lan-zuzenbideak zehaztutako arauak jarduten dute), egunkariaren eduki bera (zuzenbideak arautzen du, adierazpen-askatasuna bermatuz, baina pribatutasuna ere

¹⁵GOIKOETXEA, Jule. “Biolentzia”. Berria aldizkaria, 2020. <https://www.berria.eus/paperekoa/1876/020/001/2020-06-04/biolentzia.htm>

¹⁶ANGUITA, Julio (1999). Cáceresen emandako hitzaldi bat. (Aizene Lemosen itzulpena).

babestuz), bide publikoan ibiltzea (zuzenbide zibilak eta zuzenbide penalak babesten gaituzte)...

Horregatik uler dezakegu “*ubi homo, ibi societas; ubi societas ibi ius; ergo, ubi homio ibi ius*”, hau da, gizakia existitzen den tokian, gizartea existitzen da; gizartea existitzen den tokian, zuzenbidea existitzen da; gero, gizakia existitzen den tokian, Zuzenbidea existitzen da. R. Stammlerrek *La Génesis del Derecho* lanean dioen moduan, “*Ziurtasunez baieztatu daitekeen gauza bakarra da gizakiak agertzen diren lekuetan beti aurkitzen dugula antolamendu juridiko bat*”.¹⁷

Ordenamendu juridiko orok kontrol sozial eredu bat dakar gizarte-eredu batekin batera. Horretarako ordenamenduak funtzio batzuk betetzen ditu, hala nola orientazio eta antolaketa funtzioa; integrazio eta kontrol funtzioa; bakegintza eta gatazkak konpontzea; botere sozialak mugatzeko eta legitimatzeko eginkizunak; justizia eta herritarren ongizatea sustatzeko eginkizuna. Zuzenbidearen Historialarien hitzetan Zuzenbidea errealitate historiko bat da, hau da, momentu zehatz batetan existitu eta aldatzen dena, eta beraz, berau zer den ulertu ahal izateko, une historiko bakoitzeko egoera politiko-soziala zein den kontutan hartu beharko dugu.¹⁸

Txilen, baieztapen horiek errealitatearen isla izan daitezke. Agintarien mugimendu politikoekin nekatuta dagoen gizarte baten aurrean gaude. Herritar horiek nazkatuta egoerarekin, gizartea aldatzeko bidea hasi dute, Konstituzio berri bat aldarrikatzera daraman aldaketa sozial bat eragin dute. Konstituzio horrekin eskubide sozialak lortzeko bidea dela argi daukate.

Orduan, Txileko Konstituzio berria 2019ko urriaren 18ko gizarte-eztandaren ondoren sortutako gizarte-aldaketaren ondorioa da. Hau da, aldaketa sozial bat egoten den momentuan, ordenamendu juridikoa eraldatzeko bidea hasten da, gizartearekin bat doa Zuzenbidea, batera aldatzen dira. Gizartea garatzen doan heinean, Zuzenbidea eraldatzen eta gizarte berri horri moldatzen joaten da.

¹⁷STAMMLER, Rudolf. *La Génesis del Derecho*. Buenos Aires: Olejnik, 2018.

¹⁸BARRERE UNZUETA, María Angeles et al. *Lecciones de Teoría del Derecho; Sociedad, Estado y Derecho*. Valencia: Tirant lo Blanch libros, 1998.

3. Zuzenbidea estatuaren botere negatibo bezala

Zuzenbidea zibilizaziorako arauak eta printzipioak antolatzeko mekanismo bat da, hau da, printzipio arautzaile objektibo eta uniformeki nahitaezkoa da. Eta, gainera, zuzenbideak berekin dakar jende gehienak berez betetzea arau eta agindu juridikoak, horretaz jabetu gabe.

Bere ohiko jokabidean aldaketaren bat gertatzen denean bakarrik jabetzen da gizakia eskubideak eta betebeharrak ematen dizkion arau-ordena bat dagoela. Gizakia Zuzenbideaz jabetzen da bertan gatazkaren esperientzia gertatzen denean.

Ordenamendu juridikoak kontrol sozial bat dakar eta ordenamendu horrek funtzio ezberdinak betetzen ditu:

- a. Orientazio- eta antolaketa-funtzioa: Sistema juridikoek arau-eskema bat eskaintzen diete herritarrei beren jokabideak bideratzeko; modu berean, haien egintzek eragin ditzaketen ondorioak ezartzen dira. Modu juridikoan ziurtatutako gizarte-orientazioa eraginkorra da, hura babesten duten arau juridikoak indartu egiten baitira derrigortzeko aukeraren ondorioz.
- b. Integrazio- eta kontrol-funtzioa: Arauen bidez arautzen da herritarren jokabidea. Zuzenbideak jokabideak zuzentzen eta gidatzen ditu, eta, aldi berean, gizarte-erakundeen funtzionamendua gainbegiratzen du, gizarte-integrazioa, -kohesioa eta -oreka lortzeko.
- c. Bakegintza eta gatazkak konpontzea: Zuzenbideak gizartearen gatazka ezabatzea du helburu, pertsonak ingurune baketsuan bizi daitezen. Baina gatazka imperfektiboa da gizabanakoen, klase sozialen eta abarren artean. Beraz, Zuzenbideak gatazkak kontrolpean eduki besterik ez du egiten, desagerrarazi gabe.
- d. Botere sozialak mugatzeko eta legitimatzeko eginkizuna: Egungo sistema parlamentarioen zilegitasuna jatorria eta jarduna zuzenbidearekin bat datoze-lako dator. Legitimitate-modu hori, normalean formaltzat jotzen dena, historian lehen aldiz egin da Zuzenbideko Estatu liberalean. Haren konstituzioek, oro har behintzat, honako hauek arautzen zituzten: gizabanakoek botere politikoa baliatzeko modua, arauak sortzeko bete beharreko baldintzak eta bideak, bai eta

jarduera horren mugak ere; muga horiek ordezkari politikoaren diskrezionalitateari ematen zitzaizkion ia eskusiboki.

- e. Justizia eta herritarren ongizatea sustatzeko eginkizuna: Estatu liberalean gizarte-ordenaren oinarriak koaktiboki mantentzen dira, harreman ekonomikoetarako esparru juridikoa eskaintzen da eta gatazkak konpontzeko prozedurak ezartzen dira. Estatu liberala, beraz, zaintza- eta kontrol-zereginetara mugatzen da, gizabanakoen kontratu-berdintasuna oztopatu gabe. Ez da inolako babes-bitartekaritarik sartzen kontratazioan, merkatuak berak herritarren operatasuna eta justizia soziala sortzen dituela uste baita.¹⁹

Zuzenbidearen funtzio horiek hertsatzearen bidez gauzatzen dira. Hertsapena pertsona bati edo pertsona talde bati bere borondatearen aurka zerbait esatera edo egitera behartzeko ezartzen zaion indarra erabiltzen datza. Durkheimek²⁰ aztertu zuen hertsapen sozialari dagokionez, ekintzaren arau-orientazioa da, hau da, arau kolektibo batzuen arabera orientatutako ekintza. Hertsapen sozialaz gain, hertsapen psikologikoa aurkitzen dugu, hau da, ez-betetze egoera larriagoa egitea, zigor- edo zehapen-neurrien bidez. Laburbilduz, zuzenbidearen arabera jokatzeko da, zehapenaren beldur delako.

Botere legitimoa (arestian aztertua), Zuzenbideak legeak betetzeko ahalmena ezartzen duena da. Zentzu horretan, hertsatzeko botere legitimoa duen erakunde bakarra Estatu da, araudia betearazi eta betetzen ez duenarentzat zigorrak iragarri egiten dituen. Hori dela eta, hertsapen legala herrialde bakoitzeko kode penalean ezarrita dago, eta bertan ezartzen da zein diren Estatuak zigortuko dituen jokabideak. Azken finean, hertsapenak norbaitek beste gizabanako bati eragiten dion indarkeria fisiko, psikiko edo morala izendatzen du, bere borondatearen aurkako zerbait esatera edo egitera behartzeko, edo, halakorik ezean, ekintza edo pentsamenduren bat inhibitzeko, kasu honetan Estatu da hertsapena gidatzen edo burutzen duena bere mekanismoetaz baliatuz.

Kelsenek zuzenbidea ordena hertsatzaile gisa definitzen du, hau da, jokabideak erakundetik ezarri behar den gaitz baten mehatxuaren bidez motibatzea bilatzen duen

¹⁹BARRERE UNZUETA, María Angeles et al. *Lecciones de Teoría del Derecho*; Sociedad, Estado y Derecho. Valencia: Tirant lo Blanch libros, 1998.

²⁰DURKHEIM, Émile (1858-1917). Soziologo eta filosofo frantsesa. Bere obra garrantzitsuen artean *La división del trabajo social, Educación y sociología, Las reglas del método sociológico, El suicidio. Estudio de sociología eta Las formas elementales de la vida religiosa* aurkitzen ditugu.

arau-sistema gisa. Estatu moderno baten sistema juridikoak bere lurraldearen barruan nolabaiteko nagusitasuna eta beste sistema batzuekiko independentzia ditu ezaugarri.²¹ Sistema juridiko bat dagoenean mehatxuek babestutako agindu orokorrak ematen dituen pertsona edo pertsona-kidego bat egoten da eta agindu horiek obeditzen dira. Siniste orokorra egon behar da, mehatxu horiek desobeditze kasuan eraginkorrak izango direlarik; konbentzimendu falta izanez gero, inork ez luke sistema hori iraunaraziko.²²

Zigorraren teoriak, galdera hauei erantzuten saiatzen dira: zergatik zigortu? Eta zertarako zigortu? Teoria absolutua defenditzen dutenen artean, euren funtsa, ordainan kokatzen dute. Hortaz, teoria hauen arabera zigorra egindakoa ordaintzearen ideian oinarritzen dela. Teoria absolutuek zigorra helburu bezala ulertzen dute eta ez tresna bezala. Zigorrek ez dute urrunago doan ezer bilatzen, zigorraren bitartez delitugileak egindakoa ordaintzea nahi dute, hau da, delitugileak zigorra betetzea. Esan daiteke, Talionen legea²³ teoria absolutuek zigorrari ematen dioten esanahia biltzen duela: “*ojo por ojo, diente por diente*”. Delitua egin delako delitua burutu soilari begiratzen diote eta zigorra kostatuta ala kostatu ezarri behar dela uste dute, horrek izango dituen ondorioak kontuan hartu gabe; zigortu egin behar da nahiz eta horren bitartez ondorio negatiboak lortu.

Teoria absolutuen artean interpretazio desberdinak antzeman daitezke, jarraian sakontasunez aztertuko ditugunak: Batzuk, funts erlijiosoari ematen diote garrantzia. Erlijioaren kontrako portaera edo egintza bat pekatua da eta honen aurreko erantzuna zigorra da. Hortaz, zigorra pekatu bati eman beharreko erantzuna da, hots, erlijio baten kontrako portaera bati ematen zaion erantzuna. Gaur egun, zenbait lekutan ikuspuntu hau oraindik mantendu egiten da, baina Mendebaldean orokorrean gainditu den teoria bat dela esan dezakegu.

²¹HART, H.L.A. *El concepto del Derecho*. Buenos Aires: Abeledo-Perrop, 1961- 26-32 orr.

²²MUÑOZ CONDE, Francisco; GARCÍA ARÁN, Mercedes. *Derechos Penal parte general*. Valencia: Tirant lo blanch libros, 2010.

²³“*Ojo por ojo, diente por diente*” Talionen legeak gehien ezagutzen duen esamoldea da. Lege horrek ordainsari-justiziaren printzipio juridikoa aipatzen du, eta bertan ezartzen den arauak ekitatiboa eta elkarrekikoa izan behar du egindako krimenarekin.-

Beste batzuk funts etikoa hartzen dute ardatz moduan, Kant²⁴ bezalako autoreak aipatzea ezinbestekoa da. Kantek gizakia helburu bezala ulertzen du. Kanten filosofiaren helburu absolutua gizabanakoa da, halako moldez non gizabanakoa helburu bezala ulertzen duen eta ez tresna gisa. Hortaz, pertsona bat zigortu behar da merezi duelako; eta justizia berrezartzeko da. Zigorrak inperatibo kategoriko bezala funtzionatzen du: justizia berrezartzeko helburuarekin. Zigorrak ezingo du beste helbururik izan eta pertsona horrek zigorra betetzerakoan zigorrak bere rola agortzen du. Delituek ordena bat apurtzen dute eta zigorrak ordena hori berrezartzeko erantzun automatikoak dira. Ezingo da pertsona bat zigortua izan gainontzekoak beldurtzeko. Kanten ikuspegitik zigorra inperatibo kategorikoa izango da, zigorrak horrela funtzionatuko lukeelako, justizia berrezarri asmoz.

Teoria erlatiboak definitzen duten batzuk aurkitzen ditugu. Teoria honen arabera, zigorra guztion ongia lortzeko erabiltzen da. Teoria "erlatiboa" da, zigorra gizarte onura lortzeko tresna delako, zigorretik kanpo dagoen zerbait lortzeko tresna, horrexegatik dira teoria erlatiboak, inguruabarraren arabera gizartea bera eta gizarte onura aldatuz joango delako eta hauek teoria absolutuak ez bezala ez direlako era absolutu batean finkatzen. Teoria honek delitu gehiago ez egiteko zigortzen du, bere helburu nagusia delituak sahiestea da. Horrela, aurrezaintza orokorrarekin eta aurrezaintza bereziarekin egiten dugu topo. Aurrezaintza orokorrari dagokionez, gizartea da helburua, eta aurrezaintza efektua sortzen saiatzen da. Korrante negatiboa eta positiboa daude.²⁵

Alde batetik, aurrezaintza orokor negatiboak, Feuerbach²⁶, Filangieri²⁷ edo Bentham²⁸ bezalako egileen ustez, helburua gizartean delituak prebenitzea bada, zilegi izan beharko luke gizartean beldurra piztea helburua gauzatzeko. Horretarako, hainbat bide erabiltzen dira, hala nola legezko mehatxua edo betetzeko zentzua. Batetik, derrigortze psikologikoa dago, delituak saihesteko, zigorra aldez aurretik jakinaraziz; eta, bestetik,

²⁴KANT, Immanuel (1724-1804). Filosofo eta zientzialari prusiar bat izan zen. Alemaniako idealismoaren aitzindari eta kritizismoaren lehen ordezkaria izan zen. Europa modernoko eta filosofia unibertsaleko pentsalari eraginkorrenetakotzat hartzen da.

²⁵MUÑOZ CONDE, Francisco. *Derecho penal parte general*. Valencia: Tirant lo Blanch libros, 2010.

²⁶FEUERBACH, Ludwig (1804-1872). Filosofo alemaniarra, antropologoa, biologoa eta erlijioaren kritikaria izan zen. Humanismo ateo garaikidearen aita intelektualtzat hartzen da, ateismo antropologikoa ere deitua.

²⁷FILANGIERI, Gaetano (1753-1788). Legelari eta pentsalari italiarra izan zen.

²⁸BENTHAM, Jeremy (1748-1832). Filosofo, ekonomialari, pentsalari eta idazle ingelesa izan zen, utilitarismoaren aita.

indarra edo intentsitatea nabarmentzen da zigorrean, prebentzioa ezartzeko. Bestalde, aurrezaintza orokor positiboak gizartearen kontzientzia juridikoa indartzeko bidea planteatzen du, hau da, pertsona batek bere kontzientiaren aurka doalako delitu bat ez egitea lortzea, ez delitu hori egitea zigortuta dagoelako ez egitea.

Azkenik, Teoria ekletikoa zigorren ondorio negatiboak orekatzen saiatzen da. Era berean, delitugileak zigorra ezartzen zaionean jaso behar duen tratamenduaren garrantzia azpimarratzen du. Eta grabitatean oinarritzen da zigorrak sailkatzeko. Bere helburu nagusia justizia egitea, delitu bat egiteko gogo kentzea eta berriz ez erortzea da. Roxinen²⁹ teorian aurkitzen dugu teoria ekletikorik garrantzitsuena. Roxinek aurretik azaldutako teoretako elementuak erabili zituen batasunaren teoria hau sortzeko. Momentuaren arabera zigor bat ezartzea proposatzen du. Alemaniako legelariaren arabera, zigorra hiru fasetatik pasatzen da: kriminalizazio legala edo mehatxu penala; epailearen ezarpena edo aplikazio judiziala; eta zigorraren betearazpena.

II. TXILEKO AURREKARIAK

1. 1980ko Txileko Konstituzio Politikoaren garapen historikoa

1970ko irailaren 4an Txilen lehendakaritzarako hauteskundeak egon ziren. Salvador Guillermo Allende Gossens (1908-1973), Unidad Popular (UP)³⁰ koalizioaren buruzagiak hauteskundeak irabazi zituen. Salvador Allenderen gobernuak, sozialismoa bide demokratikotik ezartzen saiatu zen. Bere agintaldian garrantzi handia izan zuten hurrengo aldaketak: Kongresuak Kobrearen Mehatzaritza Handia Nazionalizatzeko

²⁹ROXIN, Claus (1931). Abokatu eta legelari alemaniarra da, Zigor Zuzenbidean, Nazioarteko Zigor Zuzenbidean, Zuzenbide Prozesal Penalean eta Zuzenbidearen Teorian egindako lanagatik.

³⁰Unidad Popular (UP): Txileko zentroko eta ezkerreko alderdi politiko, mugimendu eta talde sozialen koalizio politiko eta elektorala. 1969ko urriaren 9an sortu zen, Txileko Alderdi Sozialistak eta Txileko Alderdi Komunistak ideologikoki hurbil zeuden mugimendu guztiak ezkerreko bloke politiko berri batean sartzera gonbidatzeko dokumentu publiko bat egin zutenean. Urte bereko abenduan, Unitate Popularra (UP) eratu zen, Alderdi Sozialistak, Alderdi Komunistak, Herri Ekintza Unitarioaren Mugimenduak (MAPU), Rafael Tarud buru zuen Herri Ekintza Independentek (API) eta Esteban Leyton buru zuen Alderdi Sozial Demokratik (PSD) osatuta. 1971n Izquierda Cristiana eta Partido Izquierda Radical sartu ziren.

Legea³¹; alderdi ekonomikoari dagokionez, diru-sarrerak birbanatzeko eta ekonomia suspertzeko politika ezarri zuena; eta Eduardo Frei Montalva presidente (1964-1970) zela onartutako Nekazaritza Erreformaren Legeak latifundio handien desjabetzean aurrera egiteko aukera eman zion. Modu berean, nazioarteko harremanen esparruan, Kubarekiko aldebiko harremanak berrezarri ziren eta Txinarekin, Ipar Korearekin, Ipar Vietnamekin eta Ekialdeko Alemaniarekin harremanak hasi ziren.

Gobernuaren programaren izaera erradikalak erabateko oposizioa piztu zuen, bai herrialdearen barruan, bai nazioartean. Gerra Hotzaren politika oraindik nagusi zen testuinguru batean, Amerikako Estatu Batuetako (AEB) gobernuak, Richard Nixon³² presidentea buru, beharrezko arma guztiak erabiltzea erabaki zuen Txileko gobernu boteretik kentzeko helburuarekin. Modu honetan, 1972an gremio batzuek haien jarduerak geldiarazi zituzten AEBetako CIA-k finantziatuta; besteak beste, lokomozioa, garraioa eta mehatzariek greban jarri ziren. Premia biziko gaien hornikuntzarik ezak eta kolpe militarren zurrumuru etengabeek herritarren artean desgobernu sentazio kolektiboa sortzen lagundu zuten.

1973ko irailaren 11n, Allenderen agintalida hasi zenetik hiru urte igaro ondoren; AEB-k, gobernuaren oposizioa eta indar militarrek, Augusto José Ramón Pinochet Ugarte (1915-2006), Allenderen Gobernu Konstituzionaleko Armadako Komandante buruak zuzenduta, Unidad Popularreko gobernu boteretik kendu zuten estatu-kolpe baten ondorioz.

Pinocheten diktaduran, indar armatuek parlamentua dekretuz itxi, setio-egoera ezarri eta etxeratze-agindua ezarri zuten. Gainera, manifestazio sozialak eta jarduera sozialak debekatu zituzten eta unibertsitateetan esku hartu zuten. Oposiziogileak atxilotu, torturatu eta hil zituzten, batzuk exiliora bota edo kondenatu zituzten. Errepresioa jaso zutenen %80a langileak eta nekazariak ziren. Kontrol sozial eta politikorako tresna

³¹Txile. 1971eko uztailaren 16ko 17450 Legea, 1925eko Estatuko Konstituzio Politikoa aldatzen duena. Meatzaritza Ministerioa. Aldizkari Ofiziala, 1971eko uztailaren 16a.

³²MILHOUS NIXON, Richard. Amerikako Estatu Batuetako presidentea 1968-1974. Alderdi Errepublikanoaren buruzagia.

nagusia inteligentziako erakunde nazionala izan zen, Dirección de Inteligencia Nacional (DINA).³³

Gobernuak Gerra Kontseiluak antolatu zituen estatu osoan zehar. Proiektu hau hegoalde osoa hartzen zuen plan handiago batean sartzen zen, *Condor* izeneko Plana. Nazioarteko irismena zuen erakunde estrategiko bat izan zen. Hego Amerikako diktadorek parte hartu zuten (Bolivia, Txile, Argentina, Uruguai, Brasil eta Paraguai). Proiektuaren helburua komunismoaren suntsiketa izan zen. Modu berean, politika neoliberalak ezarri nahi zuten. Hau guztia AEB-ren eta CIA-ren laguntza, finantziario eta eraginarekin egin zen.³⁴ Erregimenak lan kode berri bat eratu zuen, behin-behineko ekarpenak, osasuna eta hezkuntza pribatizatuz. Estatuak gizarte-segurantzaren arloan zuen esku-hartzea murriztu zuen. Aberatsen eta pobreen arteko aldea handitu egin zen.

3465. Lege Dekretuaren bidez, 1980ko irailaren 11rako plebiszitu baterako deialdia egin zen, herritarrek Konstituzio berriari buruzko iritzia eman zezaten. 1980ko irailaren 11ko plebiszituaren, boto-emaitzen % 67,04k Konstituzio berriaren alde egin zuen. Hala ere, hauteskunde-erregistrorik ezak eta garai horretan nagusi zen askatasun publikoen murrizketak zalantza jarri zuten emaitzen legitimitatea. Oinarrizko Gutuna 1981eko martxoaren 11n sartu zen indarrean, gaur egun arte. Konstituzioa eratzeko parte hartu zuten: Konstituzio Politiko Berriaren Azterlan Batzordea, 1064. Dekretuaren bidez sortua; Enrique Ortúzar abokatuak izan zen batzordeburua. Estatu Kontseilua, 1319. Lege Dekretuaren bidez sortua; Indar Armatuetako lau goi-buruk eta Karabineroetako zuzendari nagusiak osatzen zuten. Aurrerago aztertuko dugu 1980ko Konstituzioa.

Oposizioaren mobilizazio sozial handiak diktadura behartu zuen plebiszitu batera deitzera. Hori dela eta, 1988an plebiszitu bat egin zen diktadoreak presidente bezala 1997 arte jarraituko zuen erabakitzeko edo emaitza kontrakoa balitz, 1989an hauteskunde irekiak eta lehiakorrak izango ziratekeen. Erregimenaren oposizioa,

³³ 1974ko ekainaren 14an, Batzorde Militarrek DINA sortzeko ahalmena eman zuen 521. Lege Dekretuaren bidez, eta "izaera tekniko profesionaleko erakunde militar" gisa sailkatu zuen. Bere ekintza nabarmenen artean: jendea epaiketa gabe atxilotzea eta, kasu batzuetan, Gobernuaren etsaitzat jotzen zituenak hiltzea zen, bai Txileren mugen barruan bizi zirenak zein kanpoan bizi zirenak. Honela, DINA-k erresistentzia zibil guztiak hautsi zituen.

³⁴Plan Cónдор (2018). Historiako Entziklopediatik berreskuratuta.(<https://enciclopediadehistoria.com/plan-condor/>)

ezezkoa helburu izanda, batu zen. 1988ko irailaren 5ean, ezezko botoa gairaipena lortu zuen.

Augusto Pinochetek beste urtebetez jarraitu zuen gobernuan. 1989ko abenduaren 14ko hauteskundeak ospatu baino lehen, oposizioak 1980ko Konstituzioan aldaketa batzuk exijitu zituzten: Presidentearen agintaldia 8 urtetik 4ra murriztea; *Habeas Corpusa* mantentzea salbuespen-egoeretan; eta herritarren botoen bidez aukeratutako senatarien kopurua handitzea. Baina horiek uko egin zioten erregimenak ezarritako politika neoliberallean aldaketak sartzeari. Indar armatuek egindako krimenak ere ez ziratekeen ikertuko.

Hauteskundeetan, Patricio Aylwin Azócarrek, *Concertación de Partidos por la Democracia* alderdi politikoaren hautagaiak irabazi zituen. Hortik aurrera, botere exekutiboan, *Concertación de Partidos por la Democraciako*, ezkerreko zentroko koalizioa lau gobernu egon ziren: Patricio Aylwin Azócar bera (1990-1994), Eduardo Frei Ruiz Tagle (1994-2000), Ricardo Lagos Escobar (2000-2006) eta Michelle Bachelet Jeria (2006-2010). Ondoren, zentro eskuinak bere gain hartu egin zuen gobernu Sebastian Piñera Echeniquerekin (2010-2014), ondoren Michelle Bachelet bigarrenez (2014-2018), eta berriro Piñera (2018-2022).

Gobernu demokratikoak diktadura garaiko giza eskubideen urraketei dagokienez justizia egiteko konpromisoa bete behar izan zuen. Herritarren eskarien eta muga politikoen arteko gatazka horren ondorioz, “Akordioen demokrazia” deritzona sortzen da, hau da, *Concertacion* koalizio politikoaren eta eskuineko indarren arteko adostasun politikoak bilatzea helburu duena. Estrategia politiko horrek trantsizio-prozesuari egonkortasuna ematea, eskuina joko demokratikoan integratzea eta militarrek beren jarduera profesionaletan mantentzea ahalbidetzen du.

Aldi horretan hainbat berrikuntza egin ziren. Giza Eskubideei dagokienez: *Rettig* txostena³⁵ (1991), heriotza-zigorra indargabetzea (2002), *Valech* txostena³⁶ (2004) eta Giza Eskubideen urraketan inplikaturako militarren prozedura judiziala. Bestalde, arlo zibilean, 1999an, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun juridikoa iritsi zen. Nazioarteko hitzarmenei dagokienez, izaera ekonomikoko itun ugari sinatu ziren, Txileri diktaduran eragin zion isolamendu diplomatikoari amaiera emanaz.

Ricardo Lagos 2000. urtean presidente izendatu zuten. Lagos gobernuan zegoela 1980ko Konstituzioaren 58 erreforma³⁷ onartu ziren, hau da, erreformek artikulatuak ordezkatzeko, tartekatzea, aldatzea eta indargabetzea eragin zituzten: Indar Armatuak boterea gutxitzen zioten, kongresuari gaitasun handiagoa ematen zioten eta presidentziaren iraupena 6 urtetik 4 urtera aldatu zuten. Hala ere, oso demokratikoak ez ziren elementu batzuk indarrean jarraitu zuten, hala nola hauteskunde sistema binominala³⁸.

Diktadura ostean Txilek ekonomikoki hazi egin zen. Hala ere, garapen ekonomiko horrek eragiten du desberdintasun sozial handia. 2005. urteko hauteskunde bidez Michelle Bachelet, *Concertación de Partidos por la Democracia* koalizioaren hautagaia, Txileren historiako lehenengo emakume presidentea izendatu zuten.

³⁵Rettig txostena: Egia eta Adiskidetze Batzorde Nazionala 1990ean sortu zen (Barne Ministerioaren 335 Dekretu Gorenaren bidez), 1973ko irailaren 11tik 1990eko martxoaren 11ra bitartean izandako giza eskubideen urraketa nagusiak argitzen laguntzeko. Rettig txostena batzorde honen txostena da. Hiru liburuki osatzen dute.

³⁶Valech txostena: Espetxe Politikoari eta Torturari buruzko Batzorde Nazionalaren txostenak, pertsonen duintasunari, osotasunari, askatasunari eta segurtasunari buruzko jatorria, agindua, esparru juridikoa eta definizioak garatzen ditu.

³⁷Txile. 2005eko abuztuaren 18ko 20050 Legea, Errepublikaren Konstituzio politikoari hainbat aldaketa egiten dizkion Konstituzio erreforma, 2005eko abuztuaren 26a.

³⁸Sistema binominala. Barruti edo distritu bakoitzeko bi kargu aukeratzen diren hauteskunde sistema bat da. 1989ko hauteskunde parlamentarioetarako ezarri zen Txilen, eta 2018ko martxoaren 11ra arte egon zen indarrean. Parlamentariaren hauteskunde kasuan, Auzitegiak senatari edo diputatu izendatuko ditu zerrenda bereko bi hautagaiak, baldin eta zerrenda horrek boto gehien lortzen baditu eta, guztira, boto-kopuruan atzetik duen zerrenda edo nomina halako bi baino boto gehiago baditu. Zerrenda batek ere ez baditu bi karguak lortzen, zerrendako edo nominako botoen bi gehiengo handienak lortzen dituen zerrenda edo nomina bakoitzak kargu bat aukeratuko du, eta epaimahaiak senatari edo diputatu izendatu beharko ditu zerrenda edo nomina bakoitzaren barruan gehiengo handienak lortu dituzten hautagaiak. Bete beharreko bigarren kargua bi zerrenda edo nominari edo gehiagori badagokio eskubide berarekin, epaimahaiak hautagai hautatua aldarrikatuko du banakako lehentasun gehien bildu dituen. Zerrenda bereko hautagaien artean edo zerrenda edo nomina desberdinetako hautagaien artean berdinketarik badago, epaimahaiak zozketa egingo du haien artean, jendaurreko entzunaldian, eta alde ateratzen dena izendatuko du hautetsi.

2009. urteko hauteskundeetan Miguel Juan Sebastián Piñera Echenique, *Coalición por el Cambio* alderdi koalizioaren hautagai eskuindarrak irabazi zuen. Aliantza politiko berri honek alderdi politiko hauek deitu zituen: *Renovación Nacional* eta *Unión Demócrata Independiente*; baita erreferente berriak ere, hala nola *Chile Primero*, *Humanismo Cristiano*, *Norte Grande* eta *Independientes*.

Bere agintaldia iraun zuen bitartean protestak hasi ziren herritarren nahigabeak eraginda. Hori dela eta, 2013. urteko presidentziaren hauteskundeak Michelle Bacheletek irabazi zituen. Presidenteak hiru aldaketa sustatu zituen: zergetan, hezkuntzan eta Konstituzio Politiko berri bat sortzeko lehenengo urratsak eman zituen.

2017ko azaroaren 19an Txileko presidentziako hauteskundeak ospatu ziren, diputatu eta senatarien hauteskundeekin eta eskualdeko kontseilarien hauteskundeekin batera. Juan Sebastian Piñera Echeniquek, *Chile Vamos* zentro-eskuineko eta eskuineko lau alderdi biltzen dituen koalizio politikoaren hautagaiak, hauteskundeak irabazi zituen. 2018ko martxoaren 11an, Piñeraren bigarren agintaldia hasi zen.

2. 2019ko urriaren 18ko eztanda soziala

2019ko urriaren 6an, Santiagoko garraio publikoaren tarifaren prezioa igotzeko neurria indarrean sartzen da. Txileko 30 peso igotzen da, hau da, 0,035 euro. Metroko tarifaren igoera ikusita, urriaren 14an ehunaka ikaslek protesta masiboak egiteko antolatzen dira Santiagoko metroan. Egunak aurrera doaz eta protestak gero eta jendetsuagoak bilakatzen dira.

Urriaren 18an, ezinegona hasi zenetik bost egun pasa ondoren, egoera larriagotu zen. Egun hartan, metroaren sare osoaren operazioak eten egin ziren manifestatzaileek Karabineroekin izandako liskarren ondorioz. Azken hauek, Gobernuak aginduta, gogor jardun zuten manifestariak atxilotuz, eta gas negar-eragileak erabiliz geltokietan eta metroko bagoi batzuetan. Karabineroen eta subsidiarioki Gobernuaren jarrera ikusita gau horretan Txile osotik protestak, istiluak eta arpilatzeak hasi ziren.

Urriaren 19an, Sebastian Piñerak, gobernuburuak, larrialdi-egoera ezarri zuen Santiagoko eskualdean eta etxeratze-agindua. Egoera beste bost eskualdetara zabaldu zen eta urriaren 23rako, larrialdi-egoera hamasei hiriburuetatik hamabostetan ezarri zuen. Gobernuak karabineroaz gain, militarrek atera zituen kalera.³⁹

Hurrengo bost egunetan jendea kaleetara ateratzen jarraitu zen, martxak izan ziren hiriko hainbat puntutan, baita dozenaka metro eta autobus geltokitako suteak ere. Matxinada soziala herrialde osora zabaldu zen, supermerkatu, farmazia eta denda txikietako arpilatzeekin. Urriaren 25ean Txileko historian bizi izandako protestarik jendetsuena izan zen, gutxinez milioi bat pertsona bildu ziren estatuaren hiriburuan.

Protesten ezaugarriarik adierazgarriena liderrik ez dagoela eta maila desberdinetan gizarte-espektro zabala sartu dela izan daiteke. Botere-abusuaren sentrazioak, azkenean, alderdi politiko partikular bat barik, guztiak seinalatzen dituen nahigabe bat pilatu zuen.⁴⁰ Nahiz eta hasiera batean mobilizazioek gazteak eta ekonomikoki baliabiderik ez zuten herritarrak biltzen zituzten, urriaren 18ko astea aurrera joan ahala, mobilizazioek adin eta klase sozial guztietako pertsonak biltzen zituztela ikusi zen. Izan ere, gazteek kaleetan eskatzen zutena herritarren %99ri eragiten zieten oinarrizko eskubideak ziren, eta eskubide horiek aldarrikatzea eta errespetatzea lortuz gero, txiletar asko izango lirateke onuradun. *“Gai puntual batekin hasi zen, baina ondoren harreman sozial eta politikoen beste begirada bat ezarri zen”*⁴¹ eta horrek herritar gehienak kaltetuta sentitzea eragin zuen.

Morales Quiroga⁴² bezalako autoreek eztanda sozialaren jatorri gisa lau krisi aipatzen dituzte:

- a. Hauteskundeetako parte-hartzearen krisia. 2012. urteaz geroztik (urte horretan ezarri zen herrialdean borondatezko botoa), parte-hartzea 15 puntu jaitsi da.

³⁹Sebastian Piñerak, presidentek, urriaren 20an emandako pentsaurrean hurrengo hitzak esan zituen: *“Estamos en guerra contra un enemigo poderoso, implacable, que no respeta a nada ni a nadie y que está dispuesto a usar la violencia y la delincuencia sin ningún límite”*.

⁴⁰LABARCA, D. et al. *“Las claves de una crisis que no parece acabar”*. La tercera, 2019. <https://www.latercera.com/politica/noticia/las-claves-una-crisis-no-parece-acabar/870681/>

⁴¹DAMMERT, Lucía (2019). Zientzia Politikoan doktorea Leidengo Unibertsitatean (Holanda). Erakunde akademikoetan lan egin du Estatu Batuetan, Argentinan eta Txilen.

⁴²MORALES QUIROGA, Mauricio. Zientzia Politikoan doktorea. Irakasle titularra, Zientzia Politikoko eta Administrazio Publikoko Eskola, Zientzia Juridiko eta Sozialen Fakultatea, Talcako Unibertsitatea, Santiago Campusa (Txile).

- b. Ordezkaritza-krisia eta demokrazian funtsezkoak diren erakundeekiko konfiantza galtzea (Gobernua, Auzitegiak eta Kongresua).
- c. Ordena publikoko erakundeekiko konfiantza-krisia. Azken urteotan, Carabineroak eta Indar Armatuak ustelkeria kasutan murgildu dira, eta horrek mesfidantza handia piztu du herritarrengan.
- d. Ustelkeria eta pribatizazio krisia. Alderdi politikoen eta enpresarien arteko akordio irregularrak ageri dira, hauteskunde-kaipainen finantziazioan.⁴³

Beste autore batzuek, martxetan erabilitako leloari erreparatu diote: *“No son 30 pesos son 30 años”*. Hamarkadetako hondamendia izanik, *“Diktaduran inplantatu, trantsizioan onartu eta demokrazian balioztatu zen eredu ekonomiko baten hondamendia”*.⁴⁴ Nazioartean matxinadaren arrazoia metroaren gorakadan oinarritzen bazen ere, txiletarrentzat sistemaren higadura nabarian oinarritzen zen guztia, eta jendea nekatuta zegoela hainbeste karga jasateaz. *“Herria presente zegoen, herria esnatu egin zen”*.⁴⁵

3. Konstituzio berriaren proiektua

1980ko Txileko Errepublikako Konstituzio politikoa⁴⁶ Txileko testu konstituzionala da, gaur egun indarrean dagoena. 1980ko abuztuaren 8an onartu zen⁴⁷, Augusto Pinochet jeneralaren diktadura militarren garaian, eta 1982ko irailaren 11n⁴⁸ plebiszitu baten bidez berretsi zen. 1981eko martxoaren 11n sartu zen indarrean, erregimen iragankor batean, eta 1990ko martxoaren 11n erabat.

⁴³ MORALES QUIROGA, Mauricio. *“Estallido social en Chile 2019: participación, representación, confianza institucional y escándalos públicos”*. Bogotá: Análisis político, 2020. <https://revistas.unal.edu.co/index.php/anpol/article/view/89407/757>

⁴⁴ JIMENEZ-YAÑEZ, César. *“#Chiledespertó: causas del estallido social en Chile”*. Revista Mexicana de Sociología por la Universidad Nacional Autónoma de México, 2019.

⁴⁵ JIMENEZ-YAÑEZ, César. *“#Chiledespertó: causas del estallido social en Chile”*. Revista Mexicana de Sociología por la Universidad Nacional Autónoma de México, 2019.

⁴⁶ Txile. 1980ko urriaren 24ko 1150 Dekretua, Txileko Errepublikako Konstituzio Politiko berriaren testua. Barne ministerioa.

⁴⁷ Txile. 1980ko abuztuaren 11ko 3464 Lege dekretua, Konstituzio Politiko berria onartzen du eta plebiszitu bidez berresten du. Barne ministerioa.

⁴⁸ Txile. 1980ko abuztuaren 22ko 3465 Lege dekretua, 1980ko 3.464 Lege Dekretuak xedatutako plebiszitua deitzen du, eta zer arauri lotuko zaion adierazten du. Barne ministerioa.

Arestian aipatu dugun moduan, gaur egun indarrean dagoen Konstituzioa diktadura militarrean sortutako Konstituzioa da. Horrek bidaltzen gaitu Konstituzio horren legitimazioa zalantzan jartzera. 1973 urtean Augusto Pinochetek estatu golpea gidatu zuenean eta diktadura militarra ezarri zuenean 1925. urteko Konstituzioa eten egin zuen eta “Comisión de Estudios de la Nueva Constitución” (CENC) izendatu zuen, Ortúzar Batzordea izenaz ezagunagoa, eta horri eratze-aurreproiektu bat sortzeko lana eman zitzaion. Batzorde horrek sortutako funtsezko araua herritarren parte-hartzerik gabe egin zen. Gainera, aipatu behar da gutxieneko baldintzak betetzen ez zituen plebiszitu batean bozkatu zela. Alde batetik, Txile larrialdi konstituzionaleko egoeran zegoen hori dela eta biltzeko, mugitzeko eta adierazteko eskubideak kontrolatuta zeuzkaten. Diktadoreak Estatuaren baliabide guztiak erabili zituen Konstituzioaren alde finantziaketa egiteko eta aldi berean, oposizioari ez zitzaion telebistarako sarbiderik eman eta ez zen hauteskunde zerrendarik egon. Gainera, erregimenak izendatutako alkateek bokalen mahaiak eta horien presidenteak izendatu zituzten, ustez zozketa bidez, baina ez zen onartu oposizioa sartzea. Plebiszitua hauteskunde-errolarik gabe egin zen eta botoen zenbaketa diktadurak ezarritako elkargo boto-emaile batek egin zuen, hauteskunde-prozesua kontrolatzen zuen Hauteskunde Zerbitzu autonomorik ez zegoelako. Zenbait erkidegotan eta baita eskualdeetan ere, boto-emaileen kopuruak nabarmen gainditu zuen hautesleen kopurua, botoa emateko adinean zeuden biztanleen garaiko zenbatespenak kontuan hartuta, eta horrek herritar batzuk hainbat aldiz bozkatu zutela pentsaraztea eraman dezake.⁴⁹

1980ko Konstituzioaren jatorrizko testuak 120 artikulua eta 29 xedapen iragankor zituen. Urteen joanean, 200 erreforma baino gehiago egin ondoren (bere oinarriei eragin gabe egindako aldaketak), Txileko oinarrizko arauak 129 artikulua ditu 15 kapitulutan banatuta eta xedapen iragankor bat.

1. Kapituluak: Instituzionaltasunaren oinarriak (1-9. artikulua)
2. Kapituluak: Nazionalitatea eta herritartasuna (10-18. artikulua)
3. Kapituluak: Herritarren eskubideak eta betebeharrak (19-23. artikulua)
4. Kapituluak: Gobernua (24-45. artikulua)
5. Kapituluak: Kongresu Nazionala (46-75. artikulua)

⁴⁹ FUENTES S., Claudio. *El Fraude*. Santiago de Chile: Hueders, 2013.

6. Kapituluak: Botere judiziala (76-82. artikulua)
7. Kapituluak: Ministerio Publikoa (83-91. artikulua)
8. Kapituluak: Konstituzio Auzitegia (92-94. artikulua)
9. Kapituluak: Hauteskunde-Justizia (95-97. artikulua)
10. Kapituluak: Estatuaren Kontraloria Orokorra (98-100. artikulua)
11. Kapituluak: Indar armatuak, ordena eta segurtasun publikokoak (101-105. artikulua)
12. Kapituluak: Segurtasun Kontseilu nazionala (106-107. artikulua)
13. Kapituluak: Banku zentrala (108-109. artikulua)
14. Kapituluak: Estatuko Gobernu eta Barne Administrazioa (110-126. artikulua)
15. Kapituluak: Konstituzioaren erreforma (127-129. artikulua)

a. Konstituzio berri baten aldeko lehen urratsak

Talde politiko desberdinek defendatzen dute Konstituzio berri baten ideia 2013az geroztik. Alde batetik, 2013ko parlamenturako eta eskualdeko kontseilarien hauteskundeetarako hauteskunde-ituna dugu, *Txilerako Konstituzio berria*, honako alderdi politiko hauena: *Partido Igualdad*, *Partido Ecologista Verde de Chile*, *Partido Ecologista Verde del Norte* eta zenbait mugimendu politiko eta independente 2013ko parlamentuko eta eskualdeko kontseilarien hauteskundeetarako. 2013ko abuztuaren 3an eratu zen eta ofizialki Txileko Hauteskunde Zerbitzuan inskribatu zen abuztuaren 19an. Hauteskunde-itun horrek Txileko Errepublikako Konstituzio Politiko berri bat sortzea zuen helburu, batzar konstituziogile baten bidez. *Partido Igualdad*, ezkerreko alderdia, sozialista historikotik gertu dagoen ideologikoa.⁵⁰ *Partido Ecologista Verde*, ezkerreko alderdia, ideia ekologistakoa.⁵¹ Era berean, Michelle Bachelet⁵² bigarren gobernuan, 2013-2018 aldian, gai horren inguruko bilerak eta eztabaidak jarri ziren abian, baina lotesleak ez ziren eztabaida-bilera asko egin ziren erkidegoan. Bilera horiek ez zuten lege edo erabaki indarrik lortu, eta Piñerak gobernu berreskuratzeko duen

⁵⁰ESTRADÉ-BRANCOLI, Leonardo. *Antecedente Histórico-Ideológico, su Ubicación y Adhesión por parte de los partidos Políticos Chilenos*, 2017.

⁵¹ESTRADÉ-BRANCOLI, Leonardo. *Antecedente Histórico-Ideológico, su Ubicación y Adhesión por parte de los partidos Políticos Chilenos*, 2017.

⁵²Michelle Bachelet. Medikari eta politikari txiletarra da. Bachelet bere herrialdeko presidentea izan zen bi alditan: 2006-2010, eta 014- 2018. Bere alderdi politikoa: *Partido Socialista*.

egunean, Konstituzio politiko berri baten ideia hori bertan behera geratzen da. Bestalde, 1925⁵³ liburuan, *Unión Democrática Independiente* alderdian edo eskuineko beste alderdi batzuekin identifikatutako egileek konstituzio berri baten beharrari heltzen diote.

Aipatzearren, Bacheletek proposatzen zituen aldaketen artean hurrengo hauek zeuden: TKP-ren 19.1. artikuluan adierazten den “*sortzeaz dagoen bizitzari*” ematen zaion eskubidea ezabatu egin behar dela ulertzen du, denbora luzez erabili baitzen abortua erabat zigortzeko, eta heriotza-zigorra quorum lege kalifikatu baten bidez berrezartzeko aukera kentzea. Beste aldaketa bat ere ikus daiteke eskubideen egikaritzan babes bera izateko egungo eskubidea birformulatzean, babes juridiko bera Estatuaren ikerketa eta epaiketaren aurrean dela argituz, eta esparru horretan oinarritzko eskubide berri bat txertatuz: justiziara iristeko eskubidea, TKP-ren 19.6. artikulua. Bizitza pribatua errespetatzeari eta babesteari dagokionez, Bacheleten proiektuak datu pertsonalen babesa ere jasotzen du TKP-ren 19, 7. artikulua. Eskubide sozialei dagokienez, aldaketa handiak egiten dira, osasun-eskubidea indartzeko bermeak gehituz, TKP-ren 19.13. artikulua; eta hezkuntzan, goi-mailako hezkuntzaren doakotasuna bermatzea zuen helburu, TKP-ren 19.14. artikulua. Modu berean, lan-askatasunaren ordez, lanerako eskubidea eta eskubide hori baliatzeko babes juridikoa ezartzea, TKP-ren 19.23. artikulua; gizonen eta emakumeen arteko soldata-berdintasuna txertatuz, eta Estatuako pentsio-sistema aukeratzeko askatasuna txertatzen da gizarte-segurantzarako eskubidean TKP-ren 19.25. artikulua. 1980ko Konstituzioan zeuden eskubideak erreformatzeaz gain, presidentek honako eskubide eta askatasun berriak gehitzea proposatu zuen: Nortasunerako eskubidea; haurrek eta nerabeek eskubidea dute beren osotasuna eta garapen moral, fisiko, psikiko eta sexuala errespetatzeko, eta eragiten dieten gaietan duten heldutasun mailaren eta autonomia progresiboaren arabera tratatuak izateko; gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna legearen aurrean; baldintza materialez eta oinarritzko zerbitzuez hornitutako etxebizitza batean bizitzeko eskubidea; pertsonen askatasunez informatzeko eta organo publikoek eskura duten informazioa eskuratzeko duten eskubidea; gai publikoetan parte hartzeko eskubidea, zuzenean, elkarrekin edo haien ordezkarien bidez, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz; eta herri indigenen

⁵³FONTAINE, Arturo et al. 1925: *Continuidad Republicana y legitimidad constitucional: Una propuesta*. Santiago de Chile: Catalonia, 2018.

kultura- eta hizkuntza-eskubideak eta haien kultura-, ondare higikorren eta higiezinaren eskubidea, legearen arabera.⁵⁴

2013an aipatutako mugimenduekin azaleratzen hasi zen ideiak, urriaren 18ko eztanda sozialaren ondorioz Konstituzio berri baten nahia pizten du herritarrengan. *“Armen gainean egindako sustrai neoliberalak zuen Konstituzioa erauzteko irrika ez zegoen zerumugan urtebete lehenago. Eztanda sozialak desberdintasun ekonomikoekin nazkatuta zegoen gizarte baten ibilbide-orria eta lehentasunak goitik behera birmarraztu zituen”*.⁵⁵

Txileko Konstituzioaren XV. Kapituluaren arabera, hau da, erreforma konstituzionala arautzen duten artikuluen arabera, Konstituzioa aldatzeko beharrezkoak diren quorumak eskuratzea oso zaila da. Alde batetik, erreforma proiektua onartzeko beharrezkoak dira jardunean dauden Kongresuko diputatuen eta senatarien $\frac{3}{5}$. Bestetik, Konstituzioaren I,III,VII,XI,XII eta XV. Kapituluak aldatzeko proiektua bada $\frac{2}{3}$ beharrezkoa da. Gainera, behin bi Ganbarek proiektua onartuta errepublikako presidentek errefusatu dezake. Ganbera bakoitzean jardunean dauden kideen $\frac{2}{3}$ k Ganberak bere osotasunean parte hartzen badute, presidentek proiektu hori aldarrikatu beharko du, herritarrei plebiszitu bidez kontsulta egin ezean. 128. artikuluekin jarraituz, presidentek partzialki onartuko balu erreformaren proiektua, Ganbaren $\frac{3}{5}$ ek onartu beharko dituzte lehenengoak egindako oharrak. Ganbarek gobernu buruaren oharrak ez badituzte onartzen erreforma konstituzionala ez da aurrera eramango, herritarrei plebiszitu bidez kontsultatu ezean.

2019ko urriko eztanda sozialak eraginda 2019ko azaroaren 15ean, 28 eguneko mobilizazio sozial masibo eta baketsuaren ondoren, Kongresuan ordezkariak duten eragile politikoek⁵⁶ urratsa eman zuten akordio politiko zabal bat sortzeko, Konstituzio

⁵⁴SOTO MARTÍNEZ, Víctor. *Análisis comparativo entre la Constitución vigente y el proyecto de reforma constitucional de Michelle Bachelet*. Departamento de Estudios, Extensión y Publicaciones - Biblioteca del Congreso Nacional, 2019.

⁵⁵GARRIDO, Rodrigo- *“Chile sepulta la Constitución de Pinochet”*. El Periódico, 2020. <https://www.elperiodico.com/es/internacional/20201025/chile-aprueba-referendum-nueva-constitucion-8171563>

⁵⁶Eragile politikoak: *Partido Demócrata Cristiano (PDC), Partido Socialista de Chile (PS), Partido por la Democracia (PPD), Partido Liberal (PL), Revolución Democrática (RD), Unión Demócrata Independiente (UDI), Renovación Nacional (RN), Evolución Política (Evópoli - EVO), Comunes, Partido Radical de Chile (PR) eta Convergencia Social (CS)*.

berri batekin beste itun sozial bat eraikitzea ahalbidetuko duena, “*Acuerdo de la Paz la Paz Social y la Nueva Constitución*”⁵⁷ deitutakoa.

2019ko abenduaren 24an Konstituzioaren erreforma egiten da, indarrean dagoen Konstituzioa aldatzen duena, konstituzio-prozesuaren ibilbidea eta arauak txertatzeko. Lehen azaldu dugun moduan, Txileko Konstituzioa mekanismo juridikorik aurreikusten ez zituelako funtsezko arau berri bat sortzeko.

2020ko martxoaren 29an, Sebastian Piñerak, errepublikako presidenteak, dekretu bidez, 2020ko urriaren 25eko sarrera plebisituaren deialdia egiten du.⁵⁸ 2020ko azaroaren 25ean, Txileren historiako mobilizaziorik jendetsuenaren urteurrenean, Plebisito Nazionala ospatu zen, herritarrek Konstituzio Berria idazteko aukera onartu zuen (botoen %78.28 lortuz) eta hura idazteko organoa Konbentzio Konstituziogilea (botoen %79.00 lortuz) izango dela ezartzen da. Konbentzio Konstituzionagilea 2021eko maiatzaren 15ean eta 16n bozketa unibertsalaren bidez hautatutako herritar talde batek osatuko du konstituzio berria idazteko helburua izango dutenak. 9 edo 12 hilabete geroago Konbentzioak testu konstituzional berri bat onartuko du eta 60 egun geroago (2022ko abuztua gutxi gorabehera) Konstituzio berria onartzeko edo atzera botatzeko plebisitua egingo da.

b. 1980ko Konstituzioaren mugak

1980ko Txileko funtsezko araua denboran irauteko sortua izan zen, eta ez zuen ordezkatua izateko mekanismorik aurreikusten. Existitzen zen bidea zen erreformarako bidea. Oinarri horretatik abiatuta, Konstituzio berri bat egiteko mekanismo juridikorik ez zegoenez, beharrezkoa zen zegoena aldatzea, beste bat egin ahal izateko.

⁵⁷Acuerdo por la Paz Social y la Nueva Constitución (2019) <https://media.elmostrador.cl/2019/11/Acuerdo-por-la-Paz-Social-y-la-Nueva-Constitucion%CC%81n-1.pdf>

⁵⁸ Txile. 2020ko martxoaren 29ko 388 Dekretua, 2020ko urriaren 25erako plebisitu nazionala deitzen du. <https://www.bcn.cl/leychile/navegar?idNorma=1143840>

Txileko Konstituzioa zurrunen artean aurkitzen dugu, erreformak onartzeko beharrezkoak diren quorumak kontuan hartzen baditugu. James Brycen *Constituciones flexibles y rígidas* izena duen saiakeran Konstituzioak malguen eta zurrunen artean desberdindu zituen. Konstituzio malgua lege bat onartzen den modu berean erreformatu daitekeena da. Txileko Konstituzioa erreformatzeko gehiengo kualifikatuak edo prozedura astunduak behar dira.⁵⁹

III. GIZA ESKUBIDEAK EGUN, TXILEN

Zuzenbidezko Estatu demokratikoen, oinarrizko eskubideak babestu, sustatu eta errespetatzeko erantzukizuna dute, eta horiek guztiak Konstituzioan jasota egon behar dute. Zuzenbide Estatu erreferentzia eginez, Pamela Figueroa politologo txiletarrak Michelle Bacheleten bigarren gobernuan proposatutako prozesu konstituziogilean lan egin zuena adierazten duenaren arabera, *“Gai giltzarri batzuk daude eta hauek Konbentzioan egongo dira”*. Modu berean, akademikoak dio *“Estatuaren rolak, adibidez, Txileko gizartean zatiketa bat eragiten du. Txilen gaur egun dagoen zalantza nagusietako bat Estatuak Konstituzioan duen rola da, subsidiarioa baita. Agenda politiko osoak rol sozialagoa duen Estatu bat seinalatzen du, Zuzenbideko Estatu Sozial bat”*⁶⁰

Txileko Konstituzio Politikoan, eskubide konstituzionalen artean, honako hauek ditugu: Bizitzeko eskubidea eta pertsonaren osotasun fisiko eta psikikorako eskubideak (TKP⁶¹-ko 19. artikulua, 1. zk.), berdintasuna legearen aurrean (TKP-ko 19. artikulua, 2. zk.), legearen babes berdina eta behar den prozesua (TKP-ko 19. artikulua, 3. zk.), bizitza pribatua eta ohorea babesteko eskubidea (TKP-ko 19. artikulua, 4. zk.), kontzientzia askatasuna (KTP-ko 19. artikulua, 6 zk.), askatasun pertsonalerako eta segurtasun indibidualerako eskubidea (TKP-ko 19. artikulua, 7. zk.), kutsadurarik

⁵⁹BRYCE, James. *Constituciones flexibles y rígidas*. 1884. http://idpbarcelona.net/docs/public/wp/nota_actualidad2.pdf

⁶⁰MOLINA, Paula. *“Plebiszitua Txilen: Konstituzio berria idatziko duen Konbentzio historikoak eztabaidatu beharko dituen gai nagusiak”*. BBC News Mundo, 2020.

⁶¹TKP = 1980ko Txileko Konstituzio Politikoa.

gabeko ingurumenean bizitzeko eskubidea (KTP-ko 19. artikulua, 8. zk.), iritzia emateko askatasuna (TKP-ko 19. artikulua, 12. zk.), autoritatea errespetatzen duten eskaerak aurkezteko eskubidea (TKP-ko 19. artikulua, 14. zk.), aurretiko baimenik gabe elkartzeko eskubidea (TKP-ko 19. artikulua, 15. zk.), jabetza-eskubidea (TKP-ko 19. artikulua, 24. zk.), besteak beste.

Konstituzioak 5. artikulua bidez, Giza Eskubideen nazioarteko tratatuetan jasotako eskubideak ere biltzen ditu, lehentasunezko balioa baitute. Itunak normalean bi estaturen edo gehiagoren artean elkarrekiko eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituzten akordioak dira; hala ere, Giza Eskubideei buruzko akordioek ez dute bilatzen estatuentzako eskubideak ezartzea, ez eta estatuen jarrera elkarren artean orekatzea ere; aitzitik, herritarren errespeturako eta babeserako ezartzen dira, gizabanakoak babestea xede duen alderdientzako ordena publiko komuna ezartzea helburu hartuta.⁶²

1. Giza Eskubideak eta txiletarren aldarrikapenak 2019ko eztean

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (GEAU) Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zuen 1948ko abenduaren 10ean, Parisen, 217 (III) Ebazpenean. Une horretan zegoen nazioarteko adostasun faltaren ondorioz, dokumentua ez zen formalizatu nazioarteko itun bezala, Estatu sinatzaile guztientzat derrigorrezkoa zena, eta adierazpen batera mugatu zen. Hiru hamarkada geroago, nazioarteko adostasun nahikoa lortu zen Estatuentzako derrigortasuna ezartzeko. Mundu osoko ordezkariak idatzi zuten, herri eta nazio guztientzako ideala izateko asmoz. 1948. urtean, 48 Estatu onartu zuten adierazpena, hauen artean Txile. Adierazpenak hitzaurre bat eta 30 artikulua ditu, eta eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak jasotzen dituzte.⁶³

Bestetik, New Yorkeko Itunak edo Giza Eskubideen Nazioarteko Itunak giza eskubideei buruzko nazioarteko bi itun dira, Nazio Batuen Batzar Nagusian onartutakoak, 1966ko abenduaren 16ko 2200A (XXI) Ebazpenaren bidez: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (EZPNI) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko

⁶²CASSESE, Antonio. *International law*. New York: Oxford Press, 2001.

⁶³París, Frantzia. 1948ko abenduaren 10eko 217 A (III) Ebazpena, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. <https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights>

Ituna (EESKNI). Itun horiek 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren indargarri dira. Hiru horiek, bi itunek eta adierazpenak, Giza Eskubideen Gutuna osatzen dute; Giza Eskubideak babesten dituzten funtsezko hiru testuak dira.⁶⁴

1969an Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioa (GEAK), Giza Eskubideen Amerikarteko Konferentzia Espezializatuaren ondoren, 1969ko azaroaren 22an sinatu zen Costa Ricako San José hirian, eta 1978ko uztailaren 18an jarri zen indarrean. Giza Eskubideak sustatzeko eta babesteko sistema interamerikarraren oinarrietako bat da. 82 artikuluz osatuta dago.⁶⁵

Aipatutako itunetan, Adierazpenean eta Konbentzioan hainbat eskubide eta askatasun aldarrikatzen dira. Txilen, 2019ko urriaren 18ko gizarte-eztandaren aurretik ere urratzen ziren testu horietan jasota dauden eskubideak. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 25. artikuluan adierazitakoa bezalako eskubideak, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 11. artikuluan ere aipatzen dena, *“edonork bizi-maila egokia izateko eskubidea, osasunari eta ongizateari, eta, bereziki, elikadurari, jantziei, etxebizitzari, laguntza medikoari eta beharrezko gizarte-zerbitzuei, eta, halaber, aseguruak jasotzeko eskubidea du, langabeziaren, gaixotasunaren, baliaezintasunaren edo beste baliaezintasun egoera independente batzuen ondoriozko borondateen kasuan”*.

Txilen, Osasun zerbitzua guztiz doakoa da baliabiderik ez duten pertsonentzat eta familia-sorospen bakarra eragiten dutenentzat; eta 227,23 euroko edo hortik beherako hileko zerga-sarrera duten pertsonentzat eta oinarrizko pentsio solidarioen onuradunentzat. Era berean, 227,23 eurotik gorako eta 331,75 eurotik beherako hileko zerga-sarrera duten pertsonen arantzelaren %10 ordaintzen dute ospitale publikoetan. Halaber, 331,75 eurotik gorako hileko zerga-sarrera duten pertsonen, beraz, ospitale publikoetako tarifaren %20 ordaintzen dute. Hau da, osasun eskubidea ez zegoen guztiz asetuta, behintzat ez guztiontzat. Gainera, osasun zerbitzuak, baliabide edo langile

⁶⁴New York, Amerikako Estatu Batuak. 1966ko abenduaren 16ko 2200 A (XXI) Ebazpena, Giza Eskubidei buruzko Nazioarteko Itunei buruzkoa, 1976ko martxoaren 23a/ 1976ko urtarrilaren 3a. [https://www.humanium.org/es/pacto-1966/#:~:text=Internacionales%20de%201966-,Presentaci%C3%B3n.Sociales%20y%20Culturales%20\(PIDESC\)](https://www.humanium.org/es/pacto-1966/#:~:text=Internacionales%20de%201966-,Presentaci%C3%B3n.Sociales%20y%20Culturales%20(PIDESC).).

⁶⁵San José, Costa Rica. 1969ko azaroaren 7-22ko Giza Eskubidei buruzko Amerikako Konbentzioa, Giza Eskubidei buruzko Amerika arteko Konferentzia espezializatuan sinatua, 1978ko uztailaren 18a. https://www.oas.org/dil/esp/tratados_b-32_convencion_americana_sobre_derechos_humanos.htm

faltagatik motelduta ikusten ziren, larrialdietan 10-12 ordu itxaron behar izaten zuten medikuarekin hitzordua lortzeko (bizipen-pertsonala).⁶⁶

NBEko Giza Eskubideen Bulegoaren Txilerako Misionari buruzko txostenaren eta Giza eskubideen Institutu Nazionalaren Txileko giza eskubideen egoerari buruzko 2019 urteko txostenaren arabera, urriaren 18 historiko hartatik aurrera, oinarrizko eskubideak behin eta berriz urratzen dira: bizitzeko eskubidea (GEA Uren 3. artikulua; EZPN Iren 6. artikulua; GEAK en 4. artikulua); torturaren debekua (GEA Uren 5. artikulua; EZPN Iren 7. artikulua; GEAK ren 5. artikulua); legearen aurrean babes bera izateko eskubidea (GEA Uren 7. artikulua; EZPN Iren 14. artikulua; GEAK ren 24. artikulua); arbitrarioki atxilotua edo espetxeratua ez izateko eskubidea (GEA Uren 9. artikulua; EZPN Iren 9. artikulua; GEAK ren 7. artikulua); iritzi- eta adierazpen-askatasuna (GEA Uren 19. artikulua; EZPN Iren 18. artikulua; GEAK ren 13. artikulua); bilera baketsuak egiteko askatasuna (GEA Uren 20. artikulua; EZPN Iren 21. artikulua; GEAK ren 15. artikulua).⁶⁷

Bizitzeko eskubideari dagokionez, *“Gizabanako orok du bizitzeko, askatasunerako eta bere pertsonaren segurtasunerako eskubidea”*.⁶⁸ Txileko fiskaltzaren arabera, 31 pertsona hil dira protestetan. Kasu horietako lautan, Estatuko agenteek hil zuten, eta beste bi pertsona ertzain-etxeetan zaintzapean zeudela hil ziren.⁶⁹ Modu berean, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoaren txostenaren arabera, horietako 20 protesta sozialetan hil ziren. *“NBGEGKBek kasu hauetako 11tan egiaztatu ahal izan zuen informazioa: Estatuko agenteak inplikatzten dituzten bizitzaren gabetze arbitrarioarekin eta legez kanpoko heriotzekin lotutako lau kasu. Zibil batek tiroz hildako pertsona baten kasu bat, kasuarekin lotutako militar batekin; manifestari baten heriotzarekin lotutako kasu bat, bihotzeko baten ondorioz egindako protesta batean; komisaria batean ustez bere buruaz beste egin zuen pertsona baten kasu bat;*

⁶⁶*Cómo funciona el Sistema de Salud en Chile*. Orientación en Salud. Superintendencia Chile. http://www.supersalud.gob.cl/difusion/665/w3-article-17328.html#accordion_0

⁶⁷NBEko Giza Eskubideen Bulegoa. Txilerako Misionari buruzko txostena, 2019ko urriaren 30etik azaroaren 22ra. Nazio Batuak. Giza eskubideak. Ginebra, 2019. // Giza eskubideen Institutu Nazionala. *Txileko giza eskubideen egoerari buruzko urteko txostena 2019*. Chile, 2019

⁶⁸París, Frantzia. 1948ko abenduaren 10eko 217 A (III) Ebazpena, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. (3. artikulua). <https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights>

⁶⁹La Fiscalía de Chile, 31.01.2020. http://www.fiscaliadechile.cl/Fiscalia/sala_prensa/noticias_det.do?noticiaId=17285

eragindako suteen eta arpilatzeen testuinguruan hil ziren pertonekin lotutako lau kasu".⁷⁰

Halaber, tortura kasuak eman dira. Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarrien aurkako Konbentzioaren arabera (1987), "*Torturatzat hartzen da pertsona bati min edo sufrimendu larriak, fisikoak zein mentalak, nahita inflijitzen dizkion egintza oro, pertsona horrengandik, hirugarren batengandik edo aitoren batengandik informazioa lortzeko, edozein pertsona edo pertsona edo beste pertsona bat beldurrarazi duen, edo beste pertsona baten aurka egin duen, edo beste pertsona baten aurka egin duen edo susmagarri den ekintza batengatik zigortzeko*".⁷¹ Aipatu dugun moduan, "*Inori ez zaio torturarik ezarriko, ezta zigor edo tratu krudel, anker edo apalesgarrikeria ere*"⁷², 2019ko urriaren 19tik azaroaren 30era, Giza Eskubideen Institutu Nazioanalak (GEIN) 476 kereila aurkeztu zituen tortura eta tratu krudelengatik, 568 biktimaren alde.⁷³

Urratu diren eskubideen artean, arbitrarioki atxilotua edo espetxeratua ez izateko eskubidea aurkitzen dugu, "*Inor ezin izango da arbitrarioki atxilotu, preso hartu edo erbesterratu*".⁷⁴ Urriaren 17ko gauek azaroaren 30era, GEINK herrialdeko hainbat polizia-esparru bisitatu zituen, eta 8.168 pertsona atxilotuta zeuden baldintzak egiaztatu ahal izan zituen. Ekintza judizial guztietan ordezkaturako 809 biktimetatik, 344k salatu zuten legez kanpo eta/edo arbitrarioki atxilotu zituztela urriaren 17tik azaroaren 30era bitartean.⁷⁵ Salaketek, gehienbat, Txileko Carabineroseko kideak jotzen dituzte erantzule; izan ere, urriaren 17tik azaroaren 30era bitartean, legez kanpoko atxiloketa eta/edo atxiloketa arbitrario gisa salatutako 344 gertakarietatik 313 egotzi zizkieten;

⁷⁰NBEko Giza Eskubideen Bulegoa. Txilerako Misiolari buruzko txostena, 2019ko urriaren 30etik azaroaren 22ra. Nazio Batuak. Giza eskubideak. Ginebra, 2019 - 11. orr.

⁷¹Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarrien aurkako Konbentzioa, 1987. <https://www.ohchr.org/sp/professionalinterest/pages/cat.aspx>

⁷²París, Frantzia. 1948ko abenduaren 10eko 217 A (III) Ebazpena, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. (5. artikulua). <https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights>

⁷³Giza eskubideen Institutu Nazionala. *Txileko giza eskubideen egoerari buruzko urteko txostena 2019*. Chile, 2019 - 41. orr. <https://bibliotecadigital.indh.cl/bitstream/handle/123456789/1701/Informe%20Final-2019.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

⁷⁴París, Frantzia. 1948ko abenduaren 10eko 217 A (III) Ebazpena, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. (9. artikulua). <https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights>

⁷⁵Giza eskubideen Institutu Nazionala. *Txileko giza eskubideen egoerari buruzko urteko txostena 2019*. Chile, 2019 -50. orr. <https://bibliotecadigital.indh.cl/bitstream/handle/123456789/1701/Informe%20Final-2019.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Indar Armatuak, 342 gertakarietatik 21; eta Ikerketetako Poliziako kideak 8.⁷⁶ Honekin batera, legearen aurrean babes bera izateko eskubidea urratu dute, hau da, *“Pertsona guztiak berdinak dira legearen aurrean eta, bereizketarik gabe, legearen babes bera izateko eskubidea dute. Guztiak dute babes bera izateko eskubidea, Adierazpen hau urratzen duen diskriminazio ororen aurka eta diskriminazio horretarako probokazio ororen aurka”*⁷⁷, hala ere, NBGEGKBk atxilotuei jarritako hainbat muga dokumentatu ditu. Abokatu batengana jotzeko eskubidea, oro har, aurretiazko baldintza bat da beste eskubide batzuk eskuratzeko. Beraz, abokatu bat eskuratzeko eskubidea ezin da eten.⁷⁸

GEAU-ren 19. artikulua arabera, *“Gizabanako orok du iritzi- eta adierazpen-askatasunerako eskubidea; eskubide horren barruan sartzen da bere iritziengatik gogaikarria ez izatea, ikerketak egitea eta informazioak eta iritziak jasotzea, eta horiek zabaltzea, mugarik gabe, edozein adierazpideren bidez”*.⁷⁹ GEINK 10 ekintza judizial aurkeztu zituen 13 biktimaren alde (kamarografoak, ikus-entzunezko komunikatzaileak, kazetariak, kazetaritzako ikasleak, argazkilariak eta erreportari grafikoa) eta beren komunikazio-lanetan adierazpen-askatasunean mugatuak izan zirela salatu zuten.⁸⁰

Amaitzeko, modu baketsuan biltzeko eskubidea, GEAN aurreikusita dagoena, urratu da: *“Pertsona orok du biltzeko eta elkartzeko askatasun baketsua”*.⁸¹ Indarra ezin da erabili batzar legal eta baketsuak sakabanatzeko. Manifestazio ez-baketsu baten sakabanaketa aztertu aurretik, segurtasun-indarrek saiatu behar dute indarkeriazko pertsonak

⁷⁶Giza eskubideen Institutu Nazionala. *Txileko giza eskubideen egoerari buruzko urteko txostena 2019*. Chile, 2019 -57. orr. <https://bibliotecadigital.indh.cl/bitstream/handle/123456789/1701/Informe%20Final-2019.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

⁷⁷París, Frantzia. 1948ko abenduaren 10eko 217 A (III) Ebazpena, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. (7. artikulua). <https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights>

⁷⁸NBEko Giza Eskubideen Bulegoa. Txilerako Misoari buruzko txostena, 2019ko urriaren 30etik azaroaren 22ra. Nazio Batuak. Giza eskubideak. Ginebra, 2019 - 22. orr.

⁷⁹París, Frantzia. 1948ko abenduaren 10eko 217 A (III) Ebazpena, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. (19. artikulua). <https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights>

⁸⁰Giza Eskubideen Institutu Nazionala. *Txileko giza eskubideen egoerari buruzko urteko txostena 2019*, 68. orr. <https://bibliotecadigital.indh.cl/bitstream/handle/123456789/1701/Informe%20Final-2019.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

⁸¹París, Frantzia. 1948ko abenduaren 10eko 217 A (III) Ebazpena, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. (20.1. artikulua). <https://www.un.org/es/about-us/universal-declaration-of-human-rights>

identifikatzen eta asanbladako gainerako parte-hartzaileengandik isolatzen. Kasu horretan, segurtasun-indarrek munizio ez hain hilgarriak erabili zituzten, hala nola gomazko balak eta beste jaurtigai batzuk.⁸²

Ana María García⁸³ Txileko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Publikoko Departamentuko zuzendariaren eta Michelle Bachelet presidente ohiaren ustez, hurrengoak izan behar dute, besteak beste, Txileko Konstituzio berrian babestu behar diren eskubide eta askatasunak: Bizitzeko eskubidea; abortatzeko eskubidea; bizitza pribatuarekiko errespetua; mundu guztiarentzako osasun publiko duin eta doakoa izateko eskubidea; kalitatezko eta doako hezkuntzarako eskubidea, baita goi-mailakoentzat ere; lanerako eskubidea; gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna legearen aurrean eta beren lanagatik jasotzen duten soldadari dagokionez; pentsio-sistema aukeratzeko askatasuna; haurren eta gazteen eskubidea, beren osotasuna eta garapen moral, fisiko, psikiko eta sexuala errespetatzeko, eta eragiten dieten gaietan duten heldutasun mailaren eta autonomia progresiboaren arabera tratatuak izateko; eta herri indigenen eskubidea. Hau da, 1980ko Konstituzioan jada ezarrita dauden eskubide eta askatasunak aldatzea eta eskubide eta askatasun berriak gehitzea.⁸⁴

Konstituzio berri bat nahi izanez gero herritarrek botoa eman ahal izateko plebiszitu bat egongo zela erabaki ondoren, *Apruebo Chile digno* plataforma sortu zen, eta horiek Konbentzio Konstituzionalerako hautagaiak aurkeztu zituzten. Alderdi politiko hauetako hautagaiak: *Partido Comunista (PC)*, *la Federación Regionalista Verde Social (FRVS)*, eta *Acción Humanistaren* mugimenduak (*AH*), *Izquierda Libertaria (IL)*, *Movimiento Socialista Allendista (MSA)*, *Movimiento Victoria Popular (MVP)*, *Izquierda Cristiana (IC)*, *Somos* eta *Renace*. Hurrengo helburuak aldarrikatzen dituzte, “*belaunaldi, alderdi politiko historiko eta azaleratu berrien adierazpenak biltzen gara, baina guztiok Txile eraldatzeko borondatearekin, demokrazia egonkorrago batean*

⁸²NBEko Giza Eskubideen Bulegoa. Txilerako Misionari buruzko txostena, 2019ko urriaren 30etik azaroaren 22ra. Nazio Batuak. Giza eskubideak. Ginebra, 2019 - 7-8. orr.

⁸³Ana María García. Txileko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Publikoko Departamentuko zuzendaria eta Txileko Konstituzio Zuzenbideko Elkarteko presidentea. Zutabegilea Diario Constitucional.cl-n.

⁸⁴GARCÍA, Ana María. “*Derechos fundamentales y nueva Constitución.*”. Diario Constitucional.cl, 2020. // SOTO MARTÍNEZ, Víctor. *Análisis comparativo entre la Constitución vigente y el proyecto de reforma constitucional de Michelle Bachelet*. Departamento de Estudios, Extensión y Publicaciones - Biblioteca del Congreso Nacional, 2019.

aurrera eginez, gizarte justuago bat eraikiz, non emakumeak eta sexu-disidentziak zuzenbide osoko subjektu gisa aitortuak eta aitortuak izango diren. Txile deszentralizatu, nazio anitzekoa eta ekosistemen erresilientzia berreraikitzea".⁸⁵ Hau da, alderdi politiko hauek justizian, berdintasunean, deszentralizazioan eta plurinazionaltasunean jartzen dute fokoa, ulertzen dutelako hor dagoela muina, Konstituzio berri bat sortuz gero, balore horietan oinarritu behar dela.

Bestetik, jatorrizko herriek edo herri indigenek, Konstituzio berri honetan, lehen mailako hiritar izatea lortzeko aukera ikusten dute. Salvador Millaleo abokatu maputxeak adierazi duenez, *"Txileko Konstituzio berriak maputxeen eta jatorrizko beste herrien bazterketa politikoa konpondu behar du"*.⁸⁶ Azkenean, nazio aniztasuna lortzeko aukera ezin hobea sentitzen dute, orain arte aitortu ez zaizkien eskubide eta askatasunak lortzeko bidea; autodeterminazio eskubidea, adibidez. Txileko Estatuak sinatutako Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpenaren arabera (2007), *"Herri indigenek determinazio eskubidea dute. Eskubide horren arabera, askatasunez zehazten dute haren izaera politikoa, eta askatasunez bilatzen dute haren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala"*.⁸⁷ Gainera, *"Herri indigenek, askatasunez erabakitze eskubidea baliatuz, autonomiarako edo autogobernurako eskubidea dute beren barne- eta toki-arazoekin zerikusia duten gaietan, bai eta beren funtzio autonomoak finantzatzeko baliabideak izateko eskubidea ere"*.⁸⁸

Ez dugu ahaztu behar Sebastian Piñera egungo presidentea, agintariak gertuko adituen iritziak jaso eta gero, Konstituzio berrirako bere proposamenak idatzi eta publikatu zituen. Eskubide eta askatasun politiko eta zibilen atalari dagokionez, hurrengoak defendatzen ditu: Bizitzeko eskubidea eta pertsona bati tortura edo tratu apalesgarriak emateko debekua, betiere haren osotasun fisiko eta psikikoa bermatuz; adierazpen-, pentsamendu- eta erlijio-askatasuna; modu baketsuan biltzeko askatasuna eta elkartzeko askatasuna; horri esker, sindikatuak edo beste elkarte batzuk sortu edo horietan parte

⁸⁵Anonimo. "Comando de izquierda "apruebo Chile digno" presentó a sus precandidatos para la Convención". La tercera, 2020.

⁸⁶MONTES, Rocío. "La nueva Constitución chilena debe resolver la exclusión política del pueblo mapuche". El País Internacional, 2020.

⁸⁷New York, Amerikako Estatu Batuak. 2007ko irailaren 13eko 61/295 Ebazpena, Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpenar. (3. artikulua).

⁸⁸New York, Amerikako Estatu Batuak. 2007ko irailaren 13eko 61/295 Ebazpena, Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpenar. (4. artikulua).

hartzeko eskubidea; mugitzeko askatasuna, herrialdeko edozein lekutan mugitzeko edo egoteko; errugabetasun-presuntzioa, behar bezalako prozesurako eta defentsa juridikorako eskubidea; jabetza pribaturako eskubidea, inor ezin baita bere ondasun eta eskubideez gabetu arrazoi justifikatu baten ondorioz eta lege baten arabera ez bada. Modu berean, hezkuntza, osasuna eta pentsioei buruz hitz egin du. Alde batetik, berak proposatzen duen Konstituzio marko horretan, hezkuntza derrigorrezkoa izango da eta doako sistema batek finantzatuko du, hezkuntza ertainera arte. Osasunari begira, Estatuak bermatu behar du osasun-prestazioetarako sarbide libre. Bukatzeko, pentsioei dagokionez, Estatuak biztanleek bizitza duina izateko pentsioak izateko neurriak hartu behar dituela bakarrik adierazten du.⁸⁹

2. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoaren txostena

Eztanda soziala ondoren, tortura eta tratu txarreatatik jarri ziren salaketa kopuru ugaria ikusita, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak egoera aztertzea erabaki zuen eta lortutako informazioarekin txosten bat egitea. Txosten horretatik NZGEGKB-k⁹⁰ ondorioztatu zuenez, arrazoi sendoak daude pentsatzeko urriaren 18arekin erlazionatuta giza eskubideen urraketa ugari egin direla Txilen, Karabineroen eta militarren eskutik; besteak beste, indarra proportziorik gabe eta bidegabeki erabiltzea, legez kontrako heriotzak eta zauriak eragin zituenak, tortura eta tratu txarrak, sexu-indarkeria eta atxiloketa arbitrarioak.

Azterketa 2019ko urriaren 30etik azaroaren 22ra izan zen. NZGEGKB hainbat agintari politikoekin bildu zen, Justizia eta Giza Eskubideen Ministerioarekin, Eskualdeetako gobernadoreekin, alkateekin... Gizarte zibileko kiderekin ere bildu zen, Giza eskubideak babesten dituzten gobernu kanpoko erakundeekin, ikastetxe akademikoekin. Elkarrizketa egin zituen ustezko giza eskubideen urraketan biktimekin. Txileko “Carabineros” taldeko kideekin ere elkarrizketak egin ziren. Txostenak, lehen adierazi dugun bezala, 2019ko urriaren 18tik azaroaren 22ra bitarteko aldia hartzen du nagusiki,

⁸⁹O'SHEA, María Jose. *“Nueva Constitución: Piñera entra a los contenidos y plantea 10 puntos “esenciales”*. La Tercera, 2020.

⁹⁰NZGEGKB = Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak.

baina data horren ondorengo zenbait gertaera aipatzen ditu, non NZGEGKB-k informazioa jaso duen.

Alde batetik, Nazio Batuak egindako txostenan, txiletarrei aitortutako eskubide eta askatasun batzuk aipatzen dira, hala nola modu baketsuan manifestatzeko eskubidea edo Estatuko segurtasun indarrek proportzionaltasunez jokatzeko eskubidea.

Txileko Estatuari egindako gomendioen artean, *“istiluen aurkako eskopeten erabilera berehala etetea”* gomendatzen du txostenak. Era berean, gas negar-eragileen erabilera "behar-beharrezkoa den egoeretara mugatzeko deia egin du, eta inoiz ez hezkuntza eta osasun establezimenduen barruan", eta erantsi du poliziek gas negar-eragileen erabilera egokiari buruzko jarraibide argiak jaso beharko lituzketela, baita gas negar-eragilearen kartutxoak beti *“angelu nabarmenean, eta inoiz ez horizontalean, nazioarteko estandarren arabera”*.⁹¹

Txostenaren ondorioen arabera, Txilen izan diren protestak *“hainbat arrazoi izan dituzte, desberdintasun ekonomikoa eta soziala barne. Aldi horretan batzarrerako eskubidea erabili duten pertsona gehienek modu baketsuan egin dute. Hala ere, hainbat eraso izan dira segurtasun indarren eta horien instalazioen aurka. Gainera, arpilatzeak eta jabetza suntsitzea ere izan ziren manifestazioetan eta manifestazioetatik kanpo”*. Goi Komisioaren Bulegoaren ustez, *“Arrazoi sendoak daude urriaren 18tik giza eskubideen urraketa ugari egin direla uste izateko”*. *“Bortxaketa horien artean daude indarra gehiegi eta beharrik gabe erabiltzea, legez kontrako heriotzak eta zauriak eragin zituenak, tortura eta tratu txarrak, sexu-indarkeria eta atxiloketa arbitrarioak”*.⁹² Halaber, txostenak dioenez, *“Karabineroek batzarren kontrola modu errepresiboan egin dute”*, eta *“giza eskubideen urraketa batzuk, bereziki, hain hilgarriak ez diren armen erabilera desegokia eta tratu txarren kasuak, denboran eta espazioan errepikatzen dira”*.⁹³

⁹¹NBEko Giza Eskubideen Bulegoa. Txilerako Misionari buruzko txostena, 2019ko urriaren 30etik azaroaren 22ra. Nazio Batuak. Giza eskubideak. Ginebra, 2019 - 30-32. orr.

⁹²NBEko Giza Eskubideen Bulegoa. Txilerako Misionari buruzko txostena, 2019ko urriaren 30etik azaroaren 22ra. Nazio Batuak. Giza eskubideak. Ginebra, 2019 - 30-32. orr.

⁹³NBEko Giza Eskubideen Bulegoa. Txilerako Misionari buruzko txostena, 2019ko urriaren 30etik azaroaren 22ra. Nazio Batuak. Giza eskubideak. Ginebra, 2019 - 30-32. orr.

Ateratako ondorioen ostean NZGEGKB-k Txileko Gobernuari gomendio batzuk luzatzen dizkio, *“Segurtasun indarrek giza eskubideen urraketei buruzko kontuak emango dituztela bermatzea eta urraketa horiek onartzea” eskatu dio Gobernuari*”.⁹⁴ Txostenak jarraipenerako mekanismo bat ezartzea gomendatzen du, eta *“Jarraipen-mekanismo horren helburua izan beharko litzateke Txilek azken bi hilabeteetan jasan dituen gertakari triste eta kezagarri horiek ez errepikatzeko neurriak ezartzea – Bereziki, protestek herrialdean zehar jarraitzen duten bitartean, nahiz eta intentsitate txikiagoarekin –, eta giza eskubideen urraketen alegazioak jasotzen jarraitzen dugu. Mekanismo horren lanaren emaitza publiko egin beharko litzateke*”.⁹⁵

Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoak bere txostenean adierazten duen moduan, *“Konstituzio berriaren elaborazioa inklusiboa, parte-hartzailea eta gardena izan behar du, eta giza eskubideak jarri behar ditu eztabaida nazional honen erdigunean*”.⁹⁶

IV. ONDORIOAK

2019ko urriaren 18an Txilek protesta historikoen eguna bizi zuen. Udaberriko ostiral hartan, ikasleak metro-geltokiak arpilatu zituzten, haserre bizian, protesta gisa. Egun horren ondorioz, tentsio handiko uneak bizi ziren ondorengo egunetan eta hilabeteetan protestak egiten jarraitu baitzuten; eta, horrela, eztanda hasi zenetik astebete geroago, Txileko historiako manifestaziorik jendetsuena izan zen. Txiletarrek eskubide eta askatasunak eskatzen zituzten, bizitza duina, bizi nahi dute eta ez biziraun. Eurentzat ez da metroaren tarifaren igoera bat, hiru hamarkada daramatzate Pinocheten diktadura amaitu zenetik, bizkarra ematen dien eta gutxi batzuen aberastasuna milioika pertsonen gosearen aurrean lehenesten duen Gobernu baten eskuetan bizitzen. Nahiz eta presidente desberdinak izan, hala nola P. Aylwin, E. Frei, R. Lagos, M. Bachelet eta A.

⁹⁴NBEko Giza Eskubideen Bulegoa. Txilerako Misiolari buruzko txostena, 2019ko urriaren 30etik azaroaren 22ra. Nazio Batuak. Giza eskubideak. Ginebra, 2019 - 33-35. orr.

⁹⁵NBEko Giza Eskubideen Bulegoa. Txilerako Misiolari buruzko txostena, 2019ko urriaren 30etik azaroaren 22ra. Nazio Batuak. Giza eskubideak. Ginebra, 2019 - 33-35. orr.

⁹⁶NBEko Giza Eskubideen Bulegoa. Txilerako Misiolari buruzko txostena, 2019ko urriaren 30etik azaroaren 22ra. Nazio Batuak. Giza eskubideak. Ginebra, 2019 - 33-35. orr.

Piñera, eta batzuek aldaketa sakonak eragin arren, biztanleria Estatuko botereengan konfiantza galtzen joan da.

Urriko eta azaroko egun haietan egoera bortitzak bizi ziren, manifestariek martxa baketsuak antolatzen zituzten haien ahotsak entzun zezaten, eta manifestazio batzuk supermerkatu handi arpilatuekin eta barrikadekin amaitzen zuten. Karabineroek eta militarrek arma ez hilgarriekin botatzen zuten herritarren aurka, hauek zaurituz, begietako traumatismoak eraginez eta pertsona asko arbitrarioki atxilotzen zituzten. Jendea desagertu egiten zen edo tiroz erailda agertzen zen erretako supermerkatuetan. Herritarrek milaka salaketa jarri zituzten Estatuko segurtasun indarrek oinarrizko eskubideak urratu zituztelako. Valparaiso eta Txileko hiri guztietako kaleetan gas negar-eragilearen usaina zegoen, eta usain horrek hiriak hartu zituen urriaren 18tik. Jendea altxatu egin zen, Gioconda Belli idazleak esaten duen moduan, *“Pribilegioek naturalizat jotzen duten indarkeriaren aurrean indarkeriazko erreakzioa”*.⁹⁷

Aurretik azaldu dudan moduan, Giza Eskubideen Adierazpenak (1948), New Yorkeko Itunek (1966) edo San Joseko Konbentzioak (1969) herritarrei aitortzen dizkien eskubide eta askatasunak urratu ziren eztanda sozialaren ostean Karabinero eta militarren eskutik. NBEko Giza Eskubideen Bulegoaren Txilerako Misioari buruzko txostenaren eta Giza eskubideen Institutu Nazionalaren Txileko Giza Eskubideen egoerari buruzko 2019 urteko txostenaren arabera, zehazki hurrengo eskubide eta askatasunak urratuta edo murriztuta ikusi ziren: bizitzeko eskubidea, torturaren debekua, legearen aurrean babes bera izateko eskubidea, arbitrarioki atxilotua edo espetxeratua ez izateko eskubidea, iritzi- eta adierazpen-askatasuna eta bilera baketsuak egiteko askatasuna.

Txiletarrek Konstituzio berrian ezinegona gidatzeko eta gobernaezintasuna amaitzeko modua bilatzen dute. 1980ko Konstituzioak, Augusto Pinocheten diktadura-erregimenean sortutako Gutun Magnak, ez duela zilegitasunik, biztanleria kontrolatua, beldurrean murgildua eta menderatzean hezia baitzuen ulertzen da. Konstituzio hura bozkatu zutenak ez ziren libreak aukeratzeko, Julio Anguitaren diskurtsoari lotzen natzaio, non azaltzen baitzuen askatasunean pentsatzen has

⁹⁷BELLI, Gioconda. *La mujer habitada*. España: Salamandra Publicacions Y Edicions, 2000.

gaitezkeela oinarrizko beharrak aseta ditugunean, eta pertsona haiek ez zituzten oinarrizko beharrak asetuta.

Bestalde, 1980ko Konstituzioaren aldeko plebiszitua bozkatu zen hauteskondeak irregularrak izan ziren. Konstituzio berria, gauzatzen ari den proiektu konstituziogilea, herritarren %70ek baino gehiagok babesten duena, Txileko herriaren aukera bat da, orain arte haientzat existitzen ez ziren eskubide eta askatasunak aldarrikatzeko eta, era berean, eskubide horiek errespetatzeko eta urratzeak ondorioak izateko tresnak ezartzeko. Besteak beste, bizitzeko eskubidea, abortatzeko eskubidea, lanerako eskubidea, osasun duina eta doakoa izateko eskubidea, legearen aurrean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna izateko eskubidea edo kalitatezko eta doako hezkuntza publikorako eskubidea. Horrela, zuzenbideak hertsatzeko tresna gisa balio duela ulertu behar da, baina Estatu bateko herritarren eskubideak eta askatasunak babesteko ere balio du, eta hala erabili behar da.

Konstituzio Konbentzioak osatuko duten kideak herritarrek zuzenean aukeratuko dituzte. Maiatzan egingo dira konbentzio konstituziogileak aukeratzeko hauteskondeak. Konbentzioa 155 herritar txiletarrek osatuko dute, Konstituzioaren 13. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituztenek (Txiletarrak, 18 urtetik gorakoak. Atzerrian jaiotakoak txiletarrak dira, aita edo ama txiletarrak badituzte, eta nazionalizatutakoak, urtebetez baino gehiagoz Txilen bizi izan badira soilik izan daitezke hautagai). 17 kupo egongo dira jatorrizko herrientzat. Konbentzioa konstituziogilea izateak esan nahi du kide guztiak bozketa bidez hautatuko direla, eta botere legegileak ezin duela erabaki. Hautagaiak independenteak izan daitezke edo alderdi politikoren bateko kide izan daitezke. Herritarrek Gobernuarengan eta Estatuko botere guztiengan konfiantza galdu dutela ikusita, nire aburuz proiektu hau aurrera eramateko modurik onena da, nahiz eta lan neketsuagoa eta bide luzeagoa izan, txiletarrak “arruntak” direnez Konstituzio berri honen sortzaileek, konfiantza handiagoa sentitzeko aukera izango dute.

Konstituzio berriak edo Txilen bizi izan den aldaketa sozialak urrats bat harago eraman dezake Estatu, utopia dirudi, eta orain munduan bizi garenon jarduteko modua aztertuz, nolabait nik neuk baieztatu dezaket hala izan daitekeela. Gaur egun Txileko Gobernuak zigorra eta mehatxua erabiltzen ditu herritarrek Zuzenbidea errespetatu

dezaten, hau da, zigortzea bilatzen du, inork delitu hori berriro egin ez dezan. Ez dira saiatzen pertsonen kontzientzia juridikoa indartzen, hau da, pertsona bati ikusarazten ez diola deliturik egin behar bere alde ez dagoelako eta zigortua dagoelako, ez bada bere kontzientziaren aurka doalako. Beraz, beldurrean oinarritutako tresna baten aurrean gaude. Adibidez, herritarrek Sebastian Piñeraren Gobernuak ezarritako etxeratze-agindua betetzen zuten, espetxeratuak izateko beldur zirelako, ez agindu hori urratzea euren kontzientziaren aurka joatea litzatekeelako.

Laburbilduz, hau dena kontuan hartuta, interesgarria izango litzateke gakoa jendeak Zuzenbidea errespetatzean jartzea, bertan sinesten duelako eta ez errespetatzeak dakarren zigorraren beldur delako. Zuzenbidea konbikzioagatik errespetatzea, eta ez beldurragatik. Azkenean, agintarien mugimendu politikoekin nekatuta dagoen gizarte baten aurrean gaude, herritarrek babesik gabe sentitzen dira eta haien eskubideak eta askatasunak irainduak ikusten dituzte. Herritar horiek nazkatuta egoera horrekin, gizartea aldatzeko bidea hasi zuten, Konstituzio berri bat aldarrikatzera daraman aldaketa sozial bat eragin zuten. Konstituzio horrekin eskubide sozialak lortzeko bidea dela argi zeukaten eta mundu guztia onarritako arauarenpean dagoenez, herritarrek sortzen badute herritarrentzat, inork ezingo du bere boterea berriz inposatu herrialdean bizi direnen giza eskubideak urratuz. Ondorioz, aldaketa sakonago bat lortzea, zigorraren erabileraren inguruko eztabaida dakarrena, posiblea izango litzateke. Hala ere, azken ideia honek beste azterketa bat eskatzen du.

Sekula ez nuen imajinatu aurrean izan nuen bizipena. Behin protestak hasi zirenean, deigarriena egin zitzaidan elkartasun-sentimendua, manifestatzen ziren pertsonen arteko adiskidetasun-sentimendua; era berean, dirudunen edo boteretsuen esku zeuden supermerkatu handiak, banketxeak edo farmaziak arpilatzeak egiteko aukerak zituzten, eta saltoki txikiei kalterik ez egiten saiatzen ziren. Beldur faltak ere txunditu ninduen. Guk zaurituen, heriotzen, desagertuen berriak ezagutzen genituen, baina jendeak kalera irteten jarraitzen zuen protesta egitera. Etxeratze-aginduko lapikadak oraindik entzun ahal ditut, eta ez dut inoiz ahaztuko hilgarriak ez diren armek ateratzen duten zarata, eta, arma horiek eragiten zituzten jendearen oihuak batera eta bestera korrika egiten zuten bitartean.

Europar jaio izanagatik, zuria izateagatik, lana duten gurasoak izateagatik, estatu sozial batean bizitzeagatik... ditudan abantailak baloratzen ikasi nuen; azken finean honako pribilegioak: bizitzeko etxea edukitzea, unibertsitatean ikastea nire gurasoek eta nik gure bizitzak hipotekatu gabe, supermerkatuak joatea eta janari-orga betetzeko diru nahikoa izatea, bidaiatu ahal izatea, gurasoek 65 urterekin lan egiteari utzi ahal izango diotela... Eguneroko gorabeherak, errutinaren zurrumbiloan korapilaturik, era berean hautematen ez nituenak aintzat hartzen ikasi nuen. Zuzenbidearen garrantziaz jabetu nintzen, beti sinistu izan baitut haren beharrezkotasunean, baina ikusi nuen Txileko herriak Zuzenbide indartsu bat behar zuela eta behar duela, Giza Eskubideen Adierazpenak, New Yorkeko Itunek edo San Joseko Konbentzioak aitortzen dizkien eskubide eta askatasunak ordezkatu eta babesteko. Gobernua, bere mekanismoen bidez, indarra eta beldurra arma gisa erabiliz, herritarren zorigaitzak eragindako gobernaezintasuna baretzen saiatzen zela sentitu nuen. Baina ez zuen lortu, jendea nekatuta, nazkatuta eta galtzeko ezer ez zeukan, eta hor dago gakoa, protesta horiekin irabazi besterik ezin zutela egin, eta hori zen eta da haien itxaropena.

Nere aburuz, Txileko herriak aurrerapauso handia eman du, eta benetan espero dut fruituak izatea. Txiletarrek asko sufritu dute, auzokoen neke-aurpegietan ikusi nuen, kalean ikusten nituen begietan amorrua ikus nezakeen, urriaren 18 historiko haren ondorengo egunetan isiltasuna sentitu ahal izan nuen, protestan ikusi nituen guztien kemena miretsi nuen. Gustatuko litzaidake Txiletarrak ordezkaturik egongo diren Konstituzioa bat lortzea, herriarentzat eta herritarrekin egindako Konstituzioa. Gobernuak herritarren eskubideak eta askatasunak errespetatu behar izateko tresnak lortzea, zigorgabetasuna betiko alde batera utzita.

Niretzat pribilegioa da Valparaiso gaur egun zutik dirauen mugimendu hau, lehen eskutik, bizi izana. Uste dut Txileri zuzenean eragiten dion zerbait dela, baina zeharka guztioi eragiten digu. Jendeak bere eskubideen alde aurrera egitea erabakitzen badu, bere ustez berea dena lortzearen -kalitatezko osasuna, hezkuntza publikoa, berdintasuna...- gauzak alda ditzake, nahiz eta ordaindu beharreko prezioa oso altua izan, kontuan hartu heriotzak, zaurituak, torturatuak... Itxaropena dago zerbait hobea lortzeko.

V. BIBLIOGRAFIA

Anonimo. “Comando de izquierda “apruebo Chile digno” presentó a sus precandidatos para la Convención”. La tercera, 2020.

ATIENZA, Manuel. *El sentido del Derecho*. Barcelona: Ariel, 2001.

BARRÈRE UNZUETA, María Ángeles et al. *Lecciones de teoría del Derecho*. Valencia: Tirant lo blanch libros, 1998.

BELLI, Gioconda. *La mujer habitada*. España: Salamandra Publicacions Y Edicions, 2000.

BOBBIO, Norberto. *Teoría general de la política*. Madrid: Trotta, 2005.

BOURDIEU, Pierre; WACQUANT, Loïc J.D.. *Réponses. Pour une anthropologie reflexive*. Seuil: París, 1992.

BRYCE, James. *Consittuciones flexibles y rígidas*. 1884.

ESTRADÉ-BRANCOLI, Leonardo. *Antecedente Histórico-Ideológico, su Ubicación y Adhesión por parte de los partidos Políticos Chilenos*, 2017.

FONTAINE, Arturo et al. *1925: Continuidad Republicana y legitimidad constitucional: Una propuesta*. Santiago de Chile: Catalonia, 2018.

FUENTES S., Claudio. *El Fraude*. Santiago de Chile: Hueders, 2013.

GARCÍA, Ana María. “Derechos fundamentales y nueva Constitución.”. Diario Constitucional.cl, 2020.

GOIKOETXEA, Jule. “*Biolentzia*”. Berria aldizkaria, 2020.

- HART, H.L.A. *El concepto del Derecho*. Buenos Aires: Abeledo-Perrop, 1961.
- JESSOP, Bob. *State Theory. Putting the Capitalist State in its Place*. Cambridge: Polity, 1990.
- LABARCA, D. et al. “*Las claves de una crisis que no parece acabar*”. La tercera, 2019.
- MOLINA, Paula. “Plebiszitua Txilen: Konstituzio berria idatziko duen Konbentzio historikoak eztabaidatu beharko dituen gai nagusiak”. BBC News Mundo, 2020.
- MONTES, Rocío. “*La nueva Constitución chilena debe resolver la exclusión política del pueblo mapuche*”. El País Internacional, 2020.
- MORALES QUIROGA, Mauricio. “*Estallido social en Chile 2019: participación, representación, confianza institucional y escándalos públicos*”. Bogotá: Análisis político, 2020.
- MUÑOZ CONDE, Francisco; GARCÍA ARÁN, Mercedes. *Derechos Penal parte general*. Valencia: Tirant lo blanch libros, 2010.
- NINO, Carlos Santiago. *Introducción al análisis del Derecho*. Buenos Aires: Ariel, 1980.
- PICCONI, María Verónica. *La política como vocación de Max Weber. Breve relectura en su centenario*. Buenos Aires: Revista Anales de la Facultad de Ciencias Jurídicas y Sociales, 2019.
- REALE, Miguel. *Teoría tridimensional del Derecho*. Madrid: Tecnos, 1997.
- SOTO MARTÍNEZ, Víctor. *Análisis comparativo entre la Constitución vigente y el proyecto de reforma constitucional de Michelle Bachelet*. Departamento de Estudios, Extensión y Publicaciones - Biblioteca del Congreso Nacional, 2019.

STAMMLER, Rudolf. *La Génesis del Derecho*. Buenos Aires: Olejnik, 2018.

WEBER, Max. *La política como vocación*. RUBIO LLORENTE, Arturo (itzultzaile). México: Folios Ediciones, 1982. (Originala Alemana: Politik als Beruf, 1919).

Legeria eta txostenak:

Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Bulegoa. Txilerako Misioari buruzko txostena, 2019ko urriaren 30etik azaroaren 22ra. Nazio Batuak. Giza eskubideak. Ginebra, 2019.

Giza Eskubideen Institutu Nazionala. *Txileko giza eskubideen egoerari buruzko urteko txostena 2019*. Chile, 2019.

New York, Amerikako Estatu Batuak. 1966ko abenduaren 16ko 2200 A (XXI) Ebazpena, Giza Eskubidei buruzko Nazioarteko Itunei buruzkoa, 1976ko martxoaren 23a/ 1976ko urtarrilaren 3a.

New York, Amerikako Estatu Batuak. 2007ko irailaren 13eko 61/295 Ebazpena, Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpena.

París, Frantzia. 1948ko abenduaren 10eko 217 A (III) Ebazpena, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.

San José, Costa Rica. 1969ko azaroaren 7-22ko Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioa, Giza Eskubideei buruzko Amerika arteko Konferentzia espezializatuan sinatua, 1978ko uztailaren 18a.

Txile. 1971eko uztailaren 16ko 17450 Legea, 1925eko Estatuko Konstituzio Politikoa aldatzen duena. Meatzaritza Ministerioa. Aldizkari Ofiziala, 1971eko uztailaren 16a.

Txile. 1980ko abuztuaren 11ko 3464 Lege dekretua, Konstituzio Politiko berria onartzen du eta plebiszitu bidez berresten du. Barne ministerioa.

Txile. 1980ko abuztuaren 22ko 3465 Lege dekretua, 1980ko 3.464 Lege Dekretuak xedatutako plebiszitua deitzen du, eta zer arauri lotuko zaion adierazten du. Barne ministerioa.

Txile. 1980ko urriaren 24ko 1150 Dekretua, Txileko Errepublikako Konstituzio Politiko berriaren testua. Barne ministerioa.

Txile. 2005eko abuztuaren 18ko 20050 Legea, Errepublikaren Konstituzio politikoari hainbat aldaketa egiten dizkion Konstituzio erreforma, 2005eko abuztuaren 26a.

Txile. 2020ko martxoaren 29ko 388 Dekretua, 2020ko urriaren 25erako plebiszitu nazionala deitzen du.